



Arrasate/Mondragón

TOKIKO AGENDA 21. 2009-2016



DIAGNOSTIKOA, TOKIKO EKINTZA PLANA ETA JARRAIPEN PLANA

Exekuzio data: 2008 abendua- 2010 urtarrila

Aholkulari taldea: Haizea Ikerketa, S.L.



TOKIKO AGENDA 21EN BERRIKUSPENAREN KOORDINAZIOA UDALETXEAN

Inocencia Galparsoro. Arrasate/Mondragón-eko udaletxeko alkatea.

Rafa Ugarte. Ingurumen Departamentuko udal teknikoa.

Nerea Lazpiur. Ingurumen Departamentuko udal teknikoa eta Tokiko Agenda 21eko koordinatzailea.

UDALEKO AGENDA 21EN BERRIKUSPENERAKO LAGUNTZA TEKNIKOA - AHOLKULARI TALDEA -

HAIZEA IKERKETA S.L.

Maider Etxaide

Onintza Andrés

Ainara Alonso

Junkal Fernández

AURKIBIDEA

SARRERA.....	5
AURREKARIAK	5
AUZOLAN 21 PROIEKTUAREN BAITAN EZARRITAKO EREDUA.....	7
EAEko Tokiko Agenda 21en ezarpen, kudeaketa eta jarraipen eredua.....	7
Auzolan 21 programa: Tokiko Ekintza Planen Berrikuspena	7
METODOLOGIA OROKORRAREN AURKEZPENA	9
PROZESUAREN HASIERA ETA DIAGNOSTIKOAREN ELABORAZIOA.....	10
DEFINIZIOA ETA MARTXAN JARTZEA	10
OINARRIZKO INFORMAZIOA BILTZEA ETA BATERATZEA ETA DIAGNOSTIKOAREN ELABORAZIOA	11
ONDORIOEN ARABERAKO DIAGNOSTIKOA	14
01. Lurraldea eta plangintza	14
02. Mugikortasuna	17
03. Biodibertsitatea eta paisaia	22
04. Ura	24
05. Hondakinak	27
06. Energia.....	30
07. Ingurumen kalitatea	32
08. Arriskuen kudeaketa	34
09. Udal administrazioaren eresketa publikoa eta ingurumen kudeaketa.....	36
10. Komunikazio, sentsibilizazioa eta herritarren parte-hartzea	38
11. Barne koordinazioa eta zeharkakotasuna.....	39
12. Biztanleria	41
13. Garapen ekonomikoa eta lan merkatua	42
14. Ongizatea eta gizarteratzea	45
15. Hezkuntza, euskara, kultura, kirola eta gazteria	48
16. Etxebizitza.....	52
EKINTZA PLANAREN ELABORAZIOA	53
EKINTZEN KARAKTERIZAZIOA	55
IKUSPEGIA.....	56
2009-2016 TOKIKO EKINTZA PLANA	57
HERRITARREN PARTEHARTZEA	85
JARRAIPEN PLANA	86
IRAUNKORTASUN ADIERAZLEEN KALKULUA	86
TOKIKO EKINTZA PLANAREN URTEKO EBALUAZIOA ETA PROGRAMAZIOA	87
PARTEHARTZEA JARRAIPENEAN TXERTATZEA	88
PLANAREN BERRIKUSPENA.....	90
PROZESUAREN HOBETZE AUKERETATIK LORPEN ZEHATZETARA	91

SARRERA


AURREKARIAK

Arrasate/Mondragón-eko udalak **1999**ko abenduan eman zuen bere lehen urratsa garapen iraunkorrerako ibilbidean **“Arrasate Ingurumenaren eta Garapen iraunkorraren alde”** aldarrikapen instituzionalarekin.

2000 urteko martxoan, Europako Hirien Gutuna Garapen Iraunkorraren bila (**Aalborgeko gutuna**) ekimenarekin bat egiten du, eta **Ingurumeneko Arlokako Kontseilua** sortzen da kontsultarako izaera duen kudeaketa eta herritarren parte hartzea ahalbidetzeko organo gisa. Kontseiluaren oinarrizko helburua, udal kudeaketan irizpide iraunkorrak barneratzea eta ingurumeneko udal eskumenak betetzera eta hobetzera zuzendutako herritarren proposamenak bideratzea izango zen. Testuinguru honetan hasten du **2001**ean udalak **Tokiko Agenda 21 ezartzeko** prozesua, **Ingurumen diagnostiko** bat eginez eta **Ekintza Plan** bat idatziz, herritarren parte hartze prozesu batez lagunduta. Tokiko Ekintza Plana **2003**ko maiatzeko bilkuran **onartzen da** 5 urteko exekuzio ikusmugarekin.

2002ko abenduan Arrasate/Mondragón **Udalsarea 21**era atxikitzen da, Iraunkortasunerako Euskal udalerrien Sarea, eta **2004**ko apirilean Udaltalde 21 Debagoiena taldea sortzeko hitzarmena sinatzen du, Antzuola, Aretxabaleta, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñatiko udalekin batera.

2006-2007an, udaletxeak, garapen iraunkorraren prozesuari bultzada berri bat eman nahian, **Arrasate Iraunkorra** izena zuen hausnarketa-eremu berri bat ezartzen du udalerriaren garapen ereduaren inguruan, non udalerriko gizarte-eragile adierazgarrienek hartu zuten parte. Prozesu honetatik jaio zen **“Etorkizuneko Foroa”** deitutako organoa, herritarren parte hartzea bideratzeko sortua.




2008, **Tokiko Ekintza Planaren** exekuzioaren seigarren urtea izanik, eta berez, plan hori 5 urterako egina zegoenez (2003-2007) Arrasate/Mondragón-eko udalak plana berrikustea proposatu zuen, **egungo beharrei** erantzun eta **Arrasate Iraunkorra** prozesutik eratorritako **proposamenak** aintzat hartuko zituen Ekintza Plan berri bat egiteko asmoz.

Berrikuspen hau, 2008ko urria eta 2009ko uztaila bitartean egindakoa, Tokiko Ekintza plana 21 eta "Arrasate Iraunkorraren" ekintza planen bat-egitea suposatzen duena, **Tokiko Ekintza Planak Berrikusteko Auzolan 21** proiektuaren **baitan** egin da. Tokiko Agenda 21 prozesuko udalerrri aurreratuenetako batzuen partaidetzarekin antolatutako egitasmo hau ihobek bultzatu eta koordinatu du eta Minuartia Enea eta Ikertalde aholkularitzen laguntzarekin burutu da.

AUZOLAN 21 PROIEKTUAREN BAITAN EZARRITAKO EREDUA

EAEko Tokiko Agenda 21en ezarpen, kudeaketa eta jarraipen eredua

EAEko Tokiko Agenda 21en garapen prozesuak irudian agertzen diren hurrengo faseak hartzen ditu aintzat: **Martxan jartzea**, **Diseinua** (diagnostikoa eta planifikazioa barne), eta **Ezarpenera eta jarraipenera**. Azken hau aurreratu aurkitzen denean Berrikuspena egin daiteke, diagnostikoa eguneratuz eta Plan berri bat eginez.



1go irudia: Tokiko Agenda 21 prozesuaren eskema

Eredu honen ezarpena errazteko, **Udalsarea 21**, Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareak, kide diren udalerri guztientzat komunak diren metodologia batzuk zehazten ditu. Era honetan, udalerri ezberdinen lana sarean egitea eta EAEko burutzen diren prozesuen homogeneotasuna bermatzen da.

Udalsarea 21en helburua, udalerrietan TA21en Ekintza Planak modu eraginkorrean ezartzea sustatzea da. Horretarako, laguntza-zerbitzu ezberdinak eskaintzen dizkie udalerriei, horien artean aipatzekoak dira Ekintza Planen urteko ebaluazioa eta programazioa, Tokiko Iraunkortasunaren Adierazleen urteroko kalkulua eta Tokiko Ekintza Planen Berrikuspenari buruzko Auzolan 21, non Arrasate/Mondragón-eko TA21ren berrikuspena kokatzen den.

Auzolan 21 programa: Tokiko Ekintza Planen Berrikuspena

Udalsarea 21ek eskaintzen duen zerbitzu berrienetakoa da **Auzolan 21** eta Tokiko Agenda 21 prozesuetan aurreratu dabilzan udalerriei dago zuzenduta, bere xedea prozesu horrekin lotutako zenbait arlotan edo ekintza eremu jakinetan laguntza berezia ematea baita.

Zehazki, EAEko 2008ko tokiko iraunkortasunaren txostenak nabarmendutako hutsune bat betetzeko sortu zen **Auzolan 21: Ekintza planen berrikuspena**; alegia, Tokiko ekintza planak berrikusteko erreferentziatzeko metodologia osatzeko, prozesuaren kalitatea aintzat hartze aldera.

Helburu nagusia honako hau da: Euskadiko udalerrien Tokiko Agenda 21eko ekintza planak berrikusteko metodologia bateratua prestatzea eta koordinatzea. Metodologia hori koherentea izango da EAEko Tokiko Agenda 21eko kudeaketa ereduarekiko, eta prozesuaren amaieran gidaliburu bat egingo dute, argitara emateko.

Helburu orokorrak honakoak dira:

- Udalsarea 21 sare osorako **metodologia bateratua** prestatzea, EAEko Tokiko Agenda 21en kudeaketa eredia barne hartuko eta osatuko duena.
- **Ekintza planak martxan jartzeko eta diseinatzeko garaian hautemandako trabak** gainditzeko aukera emango duen metodologia lantzea.
- Planak berrikusteko diseinaturiko metodologiak EAEko ekintza planek **gero eta kalitate handiagoa** izan dezaten laguntzea.

Udalerri parte-hartzaileek **helburu espezifikoak** izango dituzte:

- **Udalerrien eskaerei eta beharrei egokitutako Ekintza Plana** osatzea.
- Planak aintzat hartu beharko ditu **udalerriko** ingurumen, gizarte eta ekonomia egoeraren **bilakaera**, **iraunkortasuna kudeatzeko legeriaren eta metodologiaren bilakaera**, eta Planak hasiera batean aurreikusi gabeko **ekintza eremu berriak** (klima aldaketari aurre egitea, kontsumo iraunkorra, etab.).
- Hausnarketa estrategiko baten, helburuen eta zedarrien ondorio diren ekintza planak osatzea, **udal arduradun guztientzako argibide sendoak eskaintzearen**.
- **Udalaz gairik baliabide ekonomikoak lortzera** bideratutako planak osatzea, inbertsio berreskuragarriak egin ahal izateko.
- Egungoen **iraunaldia** (lauzpabost urte) baino luzeagoa izango duten planak sustatzea; hots, zortzi bat urteko indarraldia izango dutenak. Hala, benetako epeei doitutako plangintza tresna eskaini nahi da, egiten zailak diren asmoak betetzeko.


Ekintza planak berrikusteko Auzolan 21en honako **udalerriek** parte hartu dute: **Alonsotegi, Areatza, Azpeitia, Arrasate/Mondragón, Maruri-Jatabe, Tolosa eta Zarautz**. Auzolan 21en parte hatu izanagatik honako emaitzak lortu dituzte udalerriek:

- Tokiko ekintza planak berrikusteko diseinaturiko **Irizpide metodologikoen** arabera landu dituzte prozesuak.
- **Egutegi bateratu** baten arabera gauzatu dituzte prozesuak. Era berean, **antolaturiko sei tailerrak** baliagarriak izan dira ezagutza partekatzeko, ingurune metodologiko berriaren araberrako prozesuan aurrerapausoak emateko eta bakoitzaren prozesua zer egoeratan den neurtzeko, baita irizpide metodologikoak zenbateraino betetzen ari diren ikusteko ere.
- Metodologia **hobetzen** lagundu dute, eta Udalsarea 21 osatzen duten gainerako udalerrietara **zabaltzen**.

METODOLOGIA OROKORRAREN AURKEZPENA

Tokiko Ekintza Planen Berrikuspen proiektuko **metodologia**, “**EAEko udalerrietan Iraunkortasunerako Tokiko Ekintza planen Berrikuspenerako gidalerro metodologikoetan**” oinarritu da. Gidalerro hauek Udalsarea 21eko AUZOLAN 21 programako laguntza teknikoak diseinatu ditu, lhoberen zuzendaritzapean, eta kudeatutako 7 udalerrietan (Alonsotegi, Areatza, Arrasate/Mondragón, Azpeitia, Jatabe, Tolosa eta Zarautz), lanak egiteko kontratatutako laguntza tekniko ezberdinekin koordinazioan. Aipatutako metodologia hori aurreko atalean aurkeztu da.

Tokiko Agenda 21eko prozesuak 3 zatitan garatzen dira: “Martxan jartzea”, “Diseinua” eta “Ezarpena eta jarraipena”. Azken fasea egoera aurreratuan dagoenean berrikuspena egiten da diagnostikoa eguneratuz eta plan berri bat elaboratuz.



2 irudia: Tokiko Agenda 21eko prozesuen garapena Arrasate/Mondragón-erako

Ekintza Planaren berrikuspen prozesua hurrengo **lan faseetan** egituratu da:

Ekintza Planaren Berrikuspen Prozesuaren Faseak

0. DEFINIZIOA ETA MARTXAN JARTZEA

1. OINARRIZKO INFORMAZIOA BILTZEA ETA INTEGRATZEA

2. LABURTUTAKO DIAGNOSTIKOA

3. PLANAREN FORMULAZIO ESTRATEGIKOA

4. EKINTZEN KARAKTERIZAZIOA

5. KUDEAKETA ETA JARRAIPENERAKO TRESNAK ETA PLANAREN ONARPENA

PROZESUAREN HASIERA ETA DIAGNOSTIKOAREN ELABORAZIOA

DEFINIZIOA ETA MARTXAN JARTZEA

Tokiko Ekintza Plana, plan bat formulatzea bilatzen duen hasierako proposamen batean oinarrituz taxutu da:

- **Bateratua**, ingurumen izaera duten ekintzez gain izaera ekonomiko eta sozialeko ekintzak ere aintzat hartzen dituena.
- **Tokiko errealitateari** eta bere **kudeaketa beharrei** egokitua.
- Aurreko Tokiko Ekintza Planean aintzat hartu ez ziren **eremu tematiko berriei** egokitua.
- **Helburuak eta ekintzak egokitzea** iraunkortasunari lotutako alderdi **tekniko, ekonomiko, sozial eta legezkoen eboluzioari**.
- **Zeharkakoa**, barne koordinazioko mekanismoa egituratuz eta dinamizatuz.
- **Parte-hartzailea**, herritarren parte-hartzea egituratuz eta dinamizatuz.
- **Komunikatzailea eta eskuragarria** herritarrentzako.
- **Baliabide ekonomikoak eskuratzera** bideratua.
- Egun dagoen **behin behineko indarraldia** zabalagoarekin (4-5- urte), **8 urtekoa**.
- **Beste plan eta udal estrategiak** MUGI 21 v.3.1.¹ ekimenarekin modu egokian bateratzeko markoa izatea.

Ekintza Plan berria elaboratzeko ezinbestekoa izan da **zerikusia zuten eragile tekniko eta politiko** guztien **esku-hartzea**. Guztiek **banakako laguntza** izan dute, bai **urrunekoa** bai **presentziazkoa**, **diagnostikoaren** elaborazio fasean nahiz ekintzen **planifikazioan**.

¹ MUGI 21 aplikazio informatiko bat da, Udalsarea 21 osatzen duten udalerriei Tokiko Agenda 21eko prozesuak kudeatzen eta horien jarraipena egiten laguntzen diena. MUGI 21 2002an diseinatu zenez geroztik, aplikazioan hobetu beharreko alderdiak identifikatu dira, eta horiek guztiak sartuta daude MUGI 21 3.1. bertsio aurreratuagoan.

Eragile teknikoak

Pertsonala saila

José María Eraña. Arduradun teknikoa

José Mari Balanzategi. Administraria

Juan Carlos Marcos. Laneko Arriskuen Prebentzio teknikaria

Ramón Fdez. de Jauregi. Administrazio Orokorreko teknikaria

Ogasuna eta kontuak saila

Jose Luis Etxeberria. Udaltzaingoko burua

Udaltzaingoa

Gizarte ongizate saila

Iñigo Garitano. Arduradun teknikoa

Maite Aizpiri. Prebentzio/gizarteratzeko teknikaria

Aukera berdintasun saila

Maite Barreña. Arduradun teknikoa

Gazteria saila

Blanca Jauregi. Arduradun teknikoa

Kultura saila

Jon Garai. Arduradun teknikoa

Euskara saila

Jose Felix Diaz de Tuesta. Arduradun teknikoa

Hezkuntza saila

Juan Antonio Barberan. Arduradun teknikoa

Enplegua eta Garapen ekonomiko saila

Marga Garmendia. Arduradun teknikoa

Hirigintza saila

Juan Antonio Urdangarin. Arduradun teknikoa

Manolo Añibarro. Arkitekto teknikoa

Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoak saila

Alberto Loiti. Mantentze saileko arduradun teknikoa

Amaia Arana. Zerbitzueta arduradun teknikoa

Izaro Agirre. Obra saileko arduradun teknikoa

Iñaki Agirre. Argiteriaren eta sare elektrikoen arduradun teknikoa

Ingurumen saila

Rafa Ugarte. Arduradun teknikoa

Peio Garai. Landa Inguruneke teknikaria

Nerea Lazpiur. Tokiko Agenda 21eko teknikaria

Kandi Fernández. Udalako Ingurumen Eskolako zuzendaria

AUKEA

Gerentzia

Deba Garaiko mankomunitatea. Hondakinak

Marta Garmendia

Deba Garaiko mankomunitatea. Turismoa


Ana Eriz

Suradesa

ONARRIZKO INFORMAZIOA BILTZEA ETA BATERATZEA ETA DIAGNOSTIKOAREN ELABORAZIOA

Ekintza Planaren diseinuak udalerriaren diagnostikoa du oinarri. **Diagnostiko** horri esker **ahulezi, indar eta aukera nagusiak** identifikatu izan dira, eta ondorioz, etorkizuneko **beharrak**. (Ikus "Ondorioen arabeko diagnostikoa" atala).

Horretarako 2008ko azaroa eta 2009ko otsaila bitartean **2003-2007ko Tokiko Ekintza Planaren ebaluazioaren emaitzak** bildu eta aztertu ziren. Honez gain ondokok bildu ziren: **Tokiko Agenda 21en adierazleen** eta **Udalmap** iraunkortasuneko udal adierazleen emaitzak, **datuak eta txostenetako informazioa**, oinarrizkoa zein osagarria, eta udalerrian **indarrean zeuden planak**. Bestalde, **udal eragile teknikoei** eta **beste erakundeetako eragileei banakako elkarrizketak** egin zitzaizkien.



Diagnostikoaren abiapuntuko informazioa "II Eranskina. Diagnostikoaren fitxa deskriptiboak" eranskinean atxikitako 16 fitxetan egituratu da. **16 fitxa horiek Tokiko Agenda 21en kudeaketarako den MUGI 21 tresna informatikoaren 25 eremu tematikoak bateratzen dituzte.** Dokumentu honetan bertatik ateratako **ondorioak** jasotzen dira.

Bildutako eta aztertutako informazio kuantitatibo eta kualitatiboaz gain, Diagnostikoaren fitxa deskriptibo bakoitzak **aintzat hartzen** ditu:

- **Aalborgeko konpromisoak.**
- Lagungarriak diren grafikoak, irudiak eta taulak.
- **2003-2007ko Tokiko Ekintza Planarekiko lotura:**
 - Lerroak eta programak.
 - Garatzear eta indarrean dauden ekintza esanguratsuak.
- **Erlazionatutako planak eta araudia**, udal mailakoak nahiz udalaz gaindikoak.
- **Lehentasunezko jarduera-eremuak**, udal nahiz udalaz gaindiko eskumenekoak.

- **Azpi-eremu tematiko** bakoitzaren **balorazio teknika**.

ONDORIOEN ARABERAKO DIAGNOSTIKOA

01. Lurraldea eta plangintza

Eragin positiboak:

- Komunikazioetarako eta jardueretarako ardatz potentzial garrantzitsua da EAEn erdigunean estrategikoki kokatuta dagoelako.
- Hirigunea oso trinkoa da, urbanismo trinkoa baitu.
- Indarreko HAPN onartu ondoren ez dira eraiki etxebizitza dentsitate txikiko zonak, Garagartzako nukleoa izan ezik.
- Hiri hazkunderako zero perspektiba.
- Udala eta Bedoña auzoetan (hirigunetik urrundenak) zero hazkundera.
- Ekipamendu publikoen garapen garrantzitsua azken urteotan.
- Bere garaian degradatuta kontsideratzen ziren gunek gaur egun berriro urbanizatzeko eta eraberritzeko obren burutze prozesuetan daude (auzo garaiak: Erguin, Agerre-Santa Teresa, Santa Marina- Hondarribia).
- Lurzoru abandonatuak lehengoratu dira hirigintza operazioen bitartez.
- 87 baratze ekologiko egokitu dira Garagartza auzoan.
- Hiriko berdeguneen indize altua (2006an, 16,14 m²/pertsonako).
- Ez da tratamendu fitosanitariorik egiten.
- Mendiko ibilbide homologatu eta balizatuak daude (GR 123, GR 121, PR-Gi 96, PR-Gi 91, y PR-Gi 196).
- Bost ibilbide berde sailkatu dira, horietako bi mendiko ibilbide homologatu eta balizatuekin bat datozenak (1 GR eta 3 PR).
- 2008an egin da Udalerriko Landa Bideen Sareko bideen inbentarioaren zirriborroa eta zirriborro horretan oinarrituta egingo da ibilbide berdeen sarea.
- Ez motordunen zirkulaziorako 3 ibilbideren zati batzuk egokitu dira, oinezkoek eta txirrindulariek erabiltzeko (trenbide zaharreko ibilbidea, , Monterron-Erguin zumardia eta haran-hondoko bidegorria).
- 2008an 200 etxebizitzak zuten eraginkortasun energetikoko ziurtagiria (CADEM).
- Eraikuntzen zergaren gaineko hobariak eta dirulaguntzak eman zaizkie eguzki energia atzitzeko sistemak jarri dituztenei.

Eragin negatiboak:

- Lurzoruaren erabilera nahasketa baxua hirigunean, bizitegitarako erabileraren pisu handiarekin.
- Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planeko "Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala" kategoriako lurzoruen proportzio txikia eta, batik bat, "balio estrategiko handiko" lurzoruen oso ordezkartza txikia.
- Ez dago loturarik hiriko berdeguneen eta espazio ez-urbanizatuaren eta bidezidor sarearen artean.
- Ongarrien erabilera noizbehinkakoa da.
- Auzoetako merkataritza jarduerak behera egin du.
- Udalaren arabera, Gasteizen merkataritza eragina eta gastu ihesa handitu egingo dira AP1 irekitzen denean.
- Espazioa falta da udaletxeko Gizarte Ongizateko Zerbitzuen Sailean.
- Soluziorik ez gaur egun hiri inguruko baratzeak okupatuta dituzten Erguingo lurretarako (aurreikusitako dentsitate txikiko garapenak ez ditu betetzen Lurzoruaren Legeak xedatutako irizpide iraunkorrak).
- Zalduspen izan ezik, egungo urbanismo joera berrietatik urrundutako hirigintza eragiketarako, "erabilerak nahasten dituen hiri trinkorantz" zuzendutakoak.
- Zehaztu gabe daude Monterron, GELMA, Erlojua eta Ikastunen eraikinen erabilerak.
- Lezetxikiren garrantzia eta berezitasuna ez dira behar bezala aitortzen, gainerako ondare arkitektoniko eta kulturala ondo babestuta dagoen arren.

Aukerak:

- Udalbatza barne izaerako hazkundearen alde dago etxebizitzak birgaitzeko eta lurzoru abandonatuak lehengoratzeko ekimenen bitartez.
- Azken urteetan, hiri-guneen eraberritze jardueren garapen maila garrantzitsua izan da.
- Bidegorri sarea egiteak aukera emango du hiriko berdeguneak, espazio ez-urbanizatuak eta bidezidor sarea elkarren artean hobeto lotzeko.
- Kooperatibismoari lotutako potentzial turistikoa gehiago ustiatzeko aukera.
- 2008an onartu da Eguzki Energia Atzitzeko Sistemak Instalatzeko Ordenantza Erregulatzaila.
- 2007an onartu ziren Lorezaintzako Irizpide Orokorrak.
- 2007an onartu ziren Loreak Landatzeko Irizpideak.

Premiak:

- “Erabilerak nahasten dituen hiri trinkorantz” zuzendutakoa utzi eta egungo hirigintzaren joera berrirantz joatea.
- Hiriguneen birgaitze proiektuekin jarraitzea.
- Barne izaerako hazkundearen aldeko politikarekin jarraitzea, etxebizitzak birgaitzeko eta lurzoru abandonatuak lehengoratzeko ekimenen bitartez.
- Nekazaritza eta Basoak Antolatzeke Lurraldearen Arloko Planeko “Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala” kategoriako lurzoruak eta, batik bat, “balio estrategiko handiko lurzoruak babestea”.
- Ibilbide berdeen sarea sortzea.
- Hiriko berdeguneak, espazio ez-urbanizatuak eta bidezidor sarea lotzea.
- Urbanizazio berriei eragiten dien lorezaintzako irizpide orokor berriak onartzea.
- Tradizioz baserri ingurunea apaindu izan duten landareak udal lorategietan erabiltzeko aukera aztertzea.
- Auzoetako merkataritza jarduera sustatzea.
- AP1 irekitzen denean Gasteizetik izango duen merkataritza eragina eta sortuko duen gastu ihesa saihesteko alternatibak eztabaidatzea.
- Gaur egun hiri inguruko baratzeek okupatuta dituzten Erguingo lurrei soluzioa ematea (aurreikusitako dentsitate txikiko garapenak ez ditu betetzen Lurzoruaren Legeak xedatutako irizpide iraunkorrak).
- Udaletxetik kanpo Gizarte Ongizateko Zerbitzuak hartuko dituen espazioa egokitzea.
- Monterron, Gelma, Reloj eta Aprendices eraikinen erabilera definitu.
- Lezetxikiko kobei balioa ematea.
- Kooperatibismoari lotutako potentzial turistikoa ustiatzea.

02. Mugikortasuna

Eragin positiboak:

ESKARIAREN EZAUGARRIAK

- Lan pilaketa handia (2003an % 74).
- Metropoliko eta eskualdeko dinamiketan integratutako herria da, AP1 Gasteiz - Eibar errepidearen (2009an irekitzea aurreikusten da) eta Abiadura Handiko Trenaren (AHT) Gasteiz - Elorrio ardatzaren bitartez.

GARRAIO PUBLIKOA

- Herri arteko garraio publikoa nabarmen hobetu da maiztasunari eta linea kopuruari dagokionez eskualdeko gainerako herriekiko, Donostiarekiko eta Gasteizetikiko konexioetan Lurraldebus zerbitzua martxan jarri aurreko funtzionamenduarekin alderatuta.
- 2009an martxan jarriko da herrietako festetarako autobus zerbitzua.
- Garagartza eta Gesalibar landa auzoetarako taxi-bus zerbitzua.
- Mendealdeko Saihesbidea egikarituko da (obratan dago) erdialdea eta Garagartza artean aste egunetan sortzen den langileen trafikoagatiko saturazioa arintzeko.
- Udalaren arabera, garraio publiko eskaintzari buruzko informazio egokia (mugarriak, euskarri digitaleko eta paperezko triptikoak eta kutxatxoak herri arteko garraioaren markesinetan).
- 2008an, Arrasate/Mondragón-eko biztanleen % 72ak garraio publikoa erabiltzeko prest zegoela adierazi zuen. Hala ere, EAEko proportzioa baino 12 puntu baxuagoa da.

OINEZKOENTZAKO ETA BIZIKLETENTZAKO SAREAK

- Gauzatutako barruko bide sarea hierarkizatzea.
- Garibai kaleko 200 metroko zatia egokitzea garraio publikoari lehentasuna emateko.
- Oinezkoen bide sarea, zati gehienetan zirkulazioari debekatutakoa.
- Ez-motordunei alderdi bikoitzean (oinezkoak eta bizikletak) zirkulatzeke aukera ematen dien bidegorri sarea garatzea 3 ardatzetan.

IRISGARritasuna

- 2007 onartu zen bigarren Irisgarritasun Plana, udal aurrekontuetan jasota geratu zena.
- Irisgarritasun bertikalari dagokionez, egikaritzean atzerapenak izan diren arren:
 - 2008ko amaieratik martxan dago Bizkaia Etorbidetik oinezko etorbidera iristeko aukera ematen duen igogailu publikoa, Gorostiza auzoarekin (Malbinak) lotzen duena.
 - 2009an hasi dira bigarren igogailua jartzeko lanak. Igogailua Ferixalekutik Jose Luis Iñarra kalearen punturik gorenera iritsiko da bi zatitan.
 - Obenerreka eta Hondarribia kaleek bat egiten duten tokitik abiatu eta Makatzenaraino igotzen diren eskailerak saihesteko igogailua jartzeko lanak atzeratu egin dira.

BIDE-HEZKUNTZA

- Erabat bide-hezkuntzari arduraturiko udaltzaingoko agentea.

Eragin negatiboak:

MOTORIZAZIOA ETA IBILGAILUAREN ERABILERA

- Motorizazio indize altua (1997tik 2003ra bitartean % 2,2ko hazkundea urteko, biztanle kopuruak behera egin duen arren).
- Ibilgailu pribatuaren erabilera handia barne desplazamenduetarako (2001ean, desplazamenduen % 56 ibilgailu pribatuan, % 40 oinez eta % 6 garraio publikoan).
- Batik bat Debagoienako inguruko herrietatik, Gasteiztik eta Durangaldetik erakarritako mugikortasunaren pisu handia, gehien bat ibilgailu pribatuaren erabileran oinarritutakoa.

GARRAIO PUBLIKOA

- Atzerapen handiak Debagoienako tranbiaren proiektuan (2005ean abiarazitako proiektua).
- Herri arteko garraio publikoaren bidezko konexio kaskarra Durangaldea - Bilbo eta Arrasate/Mondragón-en artean.
- Foru Aldundiek eta konpainia operatzaileek ez dute hartzen dagokien neurriko inplikaziorik herri arteko garraioaren ordutegiak diseinatu, prestatu eta hedatzeko orduan eta udalaren esku uzten dute erantzukizun guztia.
- Garagartza eremuko Laneko Mugikortasun Plana geldirik dago.
- Arrasateko Goi Mailako Eskola Politeknikoko ikasleentzako aste egunetako bi garraio lineak (Azpeititik eta Bilbotik) unibertsitatearen kontura.
- Hiriko garraio zerbitzuaren maiztasun txikia (orduro) eta zenbait zatitan (ospitaleak) erabiltzaile kopuru txikia.
- Bedoña eta Udala landa auzoen eta erdialdearen arteko konexioa masa kritikoaren mende dago.
- Hiri ingurune azalera handien (Eroski izan ezik) eta erdialdearen artean hiriko garraioaren bidezko konexio txarra.
- Taxi zerbitzuaren erabilgarritasun txikia arrasatearren premiak gogobetetzeko, ia beti enpresentzako lan egiten dutelako.

OINEZKOENTZAKO ETA BIZIKLETENTZAKO SAREAK

- Puntu beltza dago San Andres kalearen eta Intxausti kalearen arteko bidegurutze parean, trenbide ohiaren ibilbideko bidegorrian, batik bat txirrindularientzat.
- Oinezko/ziklatu (motor gabeak) bideak ez dute sare bat osatzen.

ERREPIDEAK

- Erdialdearen eraketa oztopoa da hiriko garraio publikoari (autobus erreia...) edo bizikletari lehentasuna ematen dioten jarduketak egiteko.
- Eskualdea lotzen duen GI-627 errepidea eta barneko bide sarearen zati bat hondatuta daude AP1eko lanengatik eta martxan dauden hirigintzako eragiketengatik.

Eragin negatiboak:

APARKALEKUAK

- Aparkalekuen gabezia handia (2001ean % 180 arterainokoa kasuren batean) udalerriko leku gehienetan. Zenbait zonatan egoera larritu egin da aparkalekuak desagerrarazi edo baliogabetu dituzten hirigintzako lanengatik. Horren ondorioz:
 - Udalerriko kale gehienetan legez kanpoko aparkalekuak.
 - Erdialdean problematika oso berezia lanegunetako puntako orduetan eta ostiral eta larunbat gauetan.
- Biteriko eta Bizkaia Etorbideko aparkalekuen erabilera txikia.
- Laubideko aparkalekua itxita.

MERKANTZIAK

- Hainbat establezimenduren zamañek arrasatearren kexak eragin dituzte.
- Markuleteko kamioientzako aparkalekua ez dago zainduta eta, horregatik, gutxi erabiltzen da.

HERRITARREN IRITZIA

- Herriko Mugikortasun Planaren inkestan (2005), gehienek problematikotzat jotzen dituzte gehiegizko trafikoa (% 37), aparkaleku falta (% 22) eta garraio publikoaren akats operatiboak (% 16).
- Bide hezkuntzako kanpainak eta eskolaume, erretiratu eta haurdunei zuzendutako mugikortasuneko jardun onen sustapenak egiten diren arren, ez dira aldaketa handiak antzematen eguneroko ohituretan.

Aukerak:

METROPOLIKO EDO ESKUALDEKO DINAMIKAK

- Musakola auzoko Arruenarako aurreikusita dagoen Debagoienako Geltoki Intermodala (hasierako diseinua idatzia): errepide eta tranbia bidezko garraio publikoaren, oinezkoen eta ziklisten arteko lotura.
- Ipiñarri inguruan (Bergaran) kamioientzako aparkaleku zerbitzugunea sortzeko asmoa du Foru Aldundiak.

MARTXAN JARRITAKO PLAN EDO EKINTZAK ETA ONARTUTAKO ARAUDIAK

- Debagoienako Eskualde barruko Mugikortasun Plana (azken txostena 2005eko proposamenekin).
- Arrasateko Irisgarritasun Plana (2007).
- Mondragon Unibertsitatearen Ikasleentzako Mugikortasun Plana, 2007an egindakoa. Bi garraio linea jarri dira Oñati eta Eskoriatzako Fakultateetako eta Arrasateko Goi Mailako Eskola Politeknikoko ikasleentzat.
- Garagartza eremuko Fagor Ederlan eta Fagor Garagartza lantokien Laneko Mugikortasun Plana → azterlana eta ekintza plana 2007an egin ziren.

Aukerak:

MARTXAN JARRITAKO PLAN EDO EKINTZAK ETA ONARTUTAKO ARAUDIAK

- 2002an onartu zen Herri barruko Bide Publikoetako Erabileren, Trafikoaren, Zirkulazioaren eta Segurtasunaren eta Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasun gaietan Udalaren Zehatzeko Ahala erabiltzeko Prozeduraren Ordenantza Erregulatzailea.
- Lehenetasuneko esku-hartze gisa identifikatu da trafikoa kanpoalderantz desbideratzea eta erdialdea arintzea (seinale bertikalak eta horizontalak zuzendu, erdialdea oinezkoentzako moldatu eta eskualdeko errepideekin lotzeko bideak egokitu).
- Bide hezkuntzako kanpainak eta mugikortasuneko jardun onen sustapena ikastetxe guztietako ikasleei, 4 zahar etxeei eta haurdunei zuzenduta.

Premiak:

- Garraio ez-motordunaren erabilera indartzea.
- Debagoienako tranbiaren proiektuaren jarraipena egitea -udalaz gaingiko irismena-.
- Musakola auzoko Arruenarako aurreikusita dagoen Debagoienako Geltoki Intermodala (hasierako diseinua idatzia) -udalaz gaingiko irismena-.
- Durangaldea - Bilbo eta Arrasate/Mondragón-en arteko konexioa hobetzea herri arteko garraio publikoaren bitartez -udalaz gaingiko irismena-.
- Foru Aldundiek eta konpainia operatzaileek dagokien neurriko inplikazioa har dezaten lortzea herri arteko garraioaren ordutegiak diseinatu, prestatu eta hedatzeko orduan, udalaren esku utzi gabe erantzukizun guztia. -udalaz gaingiko irismena-.
- AP-1eko lanengatik eta martxan dauden hirigintzako eragiketengatik hondatuta dauden eskualdea lotzeko GI-627 errepidea eta herri barruko bide sarearen zati bat hobetzea. -udalaz gaingiko irismena-.
- Trafikoa kanpoalderantz desbideratzea eta erdialdea arintzea (seinale bertikalak eta horizontalak zuzendu, erdialdea oinezkoentzako moldatu eta eskualdeko errepideekin lotzeko bideak egokitu).
- Mugikortasuna sortzen duten zentro handiekin elkarlanean aritzea laneko garraio gisa ibilgailu pribatua gutxiago erabiltzeko.
 - Erdialdea industrialdeekin lotuko duen linea jakin bat sortzea.
 - Garagartza zonako proiektuari bultzada berria ematea.
 - Mondragon Unibertsitateko ikasleei zuzendutako garraio lineatako gabeziei eta zailtasunei aurre egiteko, haien premietara egokitzen den garraio publikoko zerbitzua bultzatzea.
- Herri barruko garraio publikoaren bitartez erdialdea eta aldirietako azalera handiak lotzeko aukera aztertzea.
- Herri barruko garraio publikoaren zerbitzua hobetzea (maiztasunak, irismena, LurraldeBusen "txartel bakarrean" sartzea...) eta bere erabilera sustatzea.
- Bakarrik bizi diren edo lekualdatzeko aukerarik ez duten pertsonen taxi arrunteko bidaiak ordaintzea.

Premiak:

- Taxi zerbitzua handitzea arrasatearren premiak asetzeko, orain ia enpresentzat bakarrik lan egiten dutelako.
- Bizikletaren erabilera indartzea.
- "Autoa partekatu" proiektua berrabiatu.
- Bizikletaren erabilera indartzea.
- Bidegorriak garatzen eta prestatzen jarraitzea.
- San Andres kalearen eta Intxausti kalearen arteko bidegurutze parean trenbide ohiaren ibilbideko bidegorrian dagoen puntu beltza zuzentzea, batik bat txirrindularientzat.
- Herri barruko bide-sare ez motorizatuak elkarrekin eta hiriarteko bideekin (Vitoria-Gasteizko eraztun berdea) lotu.
- Aparkatzeko arazoei soluzioa ematea mugikortasun iraunkorreko irizpideak errespetatuz.
- Biteriko eta Bizkaia Etorbideko aparkalekuaren erabilera sustatzea.
- Laubideko aparkalekuaren erabilera posibleak aztertzea.
- 2007ko Irisgarritasun Plana garatzen jarraitzea.
- Obenerreka eta Hondarribia kaleek bat egiten duten tokitik abiatuz Makatzenarainoko eskailerak saihesten dituen igogailua jartzea.
- Merkantzien kudeaketaren kontrola hobetzea eta ordutegiarekin, zaratekin eta aparkalekuekin zerikusia duten alderdiak hobetzea.
- Markuleteko kamioi aparkalekuko arazoak hobetzea, zaindutakoa ez delako gutxi erabiltzen baita.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako Ipiñarri zonako kamioien aparkaleku zerbitzuaren jarraipena egitea.
- Herri barruko Mugikortasun Planaren inkestaren arabera (2005), gehiengoaren iritzia da Arrasate/Mondragón-en auto ilararik gabe mugitzeko helbururantz zuzendu behar direla jarduketak (% 40). Bigarren mailan geratu dira gainazaleko aparkaleku eskaintza handitzea (% 15) eta autoaren garraio alternatiboak bultzatzea (% 13).
- Bide hezkuntzako kanpainak indartuz eta eskolaumeei, erretiratuei eta haurdunei zuzendutako mugikortasuneko jardun egokiak bultzatuz ohitura aldaketa sustatzea.

03. Biodibertsitatea eta paisaia

Eragin positiboak:

- Udalatx, ekologia eta paisaia intereseko zonak (Natura Intereseko Gunea LAAetan).
- Monterron parkeko sekuoia, Zuhaitz Berezi izendatua (EAEko Naturgune Sareko irudia).
- Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan jasota dauden landare espezieak identifikatu dira Udalatxen: abaritza - *Quercus coccifera*- (interes berezikoa); aster alpetarra -*Aster alpinus*- (arraroa) eta *Jasione crispera* (arraroa).
- Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan jasota dagoen eta Interes Komunitariokotzat deklaraturik dagoen bertako karramarroaren presentzia errekaren batean.
- Hirigintza plangintza udalerriko balio naturaletara eta paisaia balioetara egokitzea (9 erabilera zonatan antolatutako landa lurra), ingurumen intereseko zonak identifikatuz.
- 2006-2007 aldian herriko parke eta lorategietatik espezie inbaditzaileak desagerraraztea.
- Ez dago hirigintza hazkundearen ondoriozko ingurumen arriskurik.
- Ingurumen heziketa Udalako Ingurumen Eskolaren bitartez estaltzen da.
- Lezetxikiko aztarnategi arkeologiko garrantzitsuan urteko lanak uda garaian.

Eragin negatiboak:

- Baso azaleraren naturaltasun txikia (baso sailek hartzen dute udal lurren % 50). Horrek, gainera, gehiegi homogeneizatzen du paisaia.
- Paisaia kalitate baxua (arroaren gaineko oso ikuspegi antropizatuak eta gutxi dibertsifikatutakoak).
- Udalatx eremua erregulatzeko eta antolatzeko tresnak falta.
- Interes komunitarioko lehentasunezko habitaten presentzia txikia.
- Lehentasun komunitarioko habitat izendatutako *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen baso alubialen hainbat orban identifikatu dira sute arrisku probabilitate handieneko gune gisa.
- Ez da zorroztasunez ezagutzen lehen sektorearen errealitatea (lehen sektoretik bizi direnen pertsona kopurua, ustiapenen kopurua eta ezaugarriak, ingurumeneko gorabeherak...).
- Aire zabaleko erauzketa jarduerak paisaian duten eragina.
- Kareharria ateratzeko lurpeko meategia irekitzeko proiektuari oniritzia ematen bazaio, Udalaizko lurpeko akuiferoa kutsatzeko arriskua.
- Abiadura Handiko Trenaren (AHT) lanek Udalaizko akuiferoari eragin diezaioketen kaltea, zaila izango delako estankotasunari eustea.
- Lur orotako ibilgailuen erabilera mendietan, udala kezkatzen duen arazoa.

Aukerak:

- IKT azterketa bat egiten ari da, Udalaizko eremua babesteko proposamena egiteko aukera emango duena.
- Udalak hitzarmena sinatzea aurreikusten du Foru Aldundiarekin abaritzza babesteko. Jabego pribatuko 7 ha inguruko azalera da. Lursaila erosi beharko da edo, bestela, lagatzeko akordioa lortu jabeekin.
- Kurtzetxiki mendiko arbolak Kutxarenak dira eta haien mozketak agerian utziko du udal jabegoko 60 ha-ko mendi azalera. Aztertzen ari dira lursailaren etorkizuneko kudeaketa Bedoña auzoko biztanleen nekazaritzako eta abeltzaintzako premiak partikularki eta arrasatearrenak or-har kontuan hartuta. Auzotarrei leku egokia iruditzen zaie behi eta ardientzako larretarako, balio naturalak balioesteko eta arrasatearren aisiarako eskakizunak gogobetetzeko.
- San Josepe Bi harrobiaren aprobetxamendurako ideia lehiaketa, begi inpaktua murrizteko eta ingurumen, ekonomia eta gizarte ikuspegitik lehengoratzeko.

Premiak:

- Basoen naturaltasuna berreskuratzea espezie autoktonoekin basoa berrituz.
- Paisaia irizpideak lurralde antolamenduan txertatzea.
- Udalaizko lurpeko akuiferoa kutsatzea eragotziko duten prebentziozko neurrien eta neurri zuzentzaileen jarraipena egitea:
 - kareharria erazteko lurpeko meategia irekitzeko proiektua onartzen bada.
 - Abiadura Handiko Trenaren (AHT) lanek eragindakoak.
- Lur orotako ibilgailuen mendiko erabilera aztertzea eta arautzea.
- Lehen sektoreak herrian duen gizarte, ekonomia eta ingurumen arloko errealitatea ezagutzeko aukera emango duen azterketa sakona egitea.
- Natura intereseko eremu guztien babesa bermatzea antolamendu eta kudeaketako irudien eta planen bitartez:
 - Udalaizko eremua babesteko proposamena egitea, IKT-k egindako azterlanean oinarrituta.
 - Hitzarmena Foru Aldundiarekin abaritzza babesteko.
 - Kurtzetxiki mendiaren etorkizuneko kudeaketa definitzea, Begoña auzoko biztanleen nekazaritzako eta abeltzaintzako premiak partikularki eta arrasatearrenak or-har kontuan hartuta. Auzotarrei leku egokia iruditzen zaie behi eta ardientzako larretarako, balio naturalak balioesteko eta arrasatearren aisiarako eskakizunak gogobetetzeko.
 - Lehentasunezko habitat komunitarioak babestea.

04. Ura

Eragin positiboak:

HORNIKUNTZA ETA BANAKETA-SAREA

- Sare eta hornikuntzen azpiegiturretan dagoen gehieneko estaldura gradua, hirigunean.
- Udala eta baserrien arteko hitzarmenen sinadura, ur horniduraren (zulaketak edo iturburuen hobekuntzak) egituraren hobekuntzarako, Udalak ez baitu posible ikusten landa-guneetako 100%eko estaldura, dagozkion inbertsioengatik.
- Orain 5 urtetik instalaturik dagoen programa informatiko berritzailea, urrun kontrolerako eta ur hornidura sarea gainbegiratzeko ezarria, ur kontsumoaren kopurua, eboluzioa eta ur galeren berri ematen du.
- 2 urtero, ur hornidura eta banaketaren inbentarioa, hobekuntza proiektuen definizioa eta Uraren Euskal Agentziaren diru laguntzen deialdien aurkezpena.
- Udalaren arabera, zuntz-zementuzko hodiak guztiz ez badira aldatu, ur-hornikuntza sarea egoera onean kontserbatu.
- Urkuluko urtegitik datorren uraren kalitate askietsia, populazioaren %95a asetzen duena.
- Iturburuetatik datorren ura, gunee berdeen ureztapenerako erabiltzea.

ESKARIA ETA KONTSUMOA

- 2005 eta 2006 artean biztanleko eta eguneko etxeko uraren kontsumoaren %5 jaitsiera.
- 2005 eta 2006 artean, nekazaritza, industri eta udalerrri kontsumo jaitsiera (%17,6 %10,1 eta %16,2 urrenez urren).
- Udal administrazioan, uraren kudeaketaren hiruhilabeteko jarraipena.
- Udalaren eskutik, ur kontsumitzaile handien kontrola.

SANEAMENDUA ETA ARAZKETA

- 2007an Deba eta Aramaio ibai-ibilguen saneamenduen obren amaiera.
- Kanpantzar errekastora isurtzen ziren hondakin uren bilketa, kolektore sekundario batean.
- Hirigunearen %60a sare banatzailearekin eta sare unitariodun gainezkabide sistemekin (ekaitz urmaelak).
- Hirigunean, saneamenduko sarearen estaldura maila 100%a.
- Udalaren arabera, saneamendu sarearen estaldura maila handia nekazal gunean (Udala, Garagartza, Zaldibar eta Gesalibar auzoaren %50a).
- Aramaio ibaiaren hobekuntza jarduera.
- Aramaio ibaiaren ibilgu ezberdinetako ibai ertzaren hobekuntza.

Eragin positiboak:

ARAUDIA ETA URAREN ZIKLOAREN KUDEAKETA

- Udalak hornikuntza eta saneamendu zerbitzuetan artaturiko gorabeherak.
- Termino finko (kontagailuaren diametroa) eta termino aldakorren (kontsumoa) arteko tarifa sistema hibridoa.
- Hornidura sarearen eta xehetasun gutxiagoarekin, saneamendua sarearen kartografia eskuragarria.
- Aurrezteko tresnak administrazioan izatea.

SENTSIBILIZAZIOA

- Udalaren aldetik sentibilizazio kanpainak hiritarrei eta eskola-umeei, eskola agendaren barruan, zuzendurikoak.

UR-BALIABIDEEN KALITATEA ETA ESKURAGARRITASUNA

- Udalaren arabera, ur hornidura normala ziurtatua %99,9an.

Eragin negatiboak:

HORNIDURA ETA BANAKETA

- Bostate eta Beneras iturburuetan analisi ez egokiak.

ESKARIA ETA KONTSUMOA

- 2001ean industri ur eskaria biztanleko eta eguneko, askoz handiagoa Tolosa eta Zarautzen erregistraturiko datuak baino (216,89 litro/biztanle/egun, 184,45 eta 191,12balioen aurrean urrenez urren). Zenbaketa honek ez du industria kontsumoa etxeko kontsumotik bereizten.

SANEAMENDUA ETA ARAZKETA

- Epeleko UZA (Ur Zikinen Araztegia) abian jartzeko zain (2010erako aurreikusi da).
- Saneamendu sistemaren egoera eta egokitzapenaren inbentarioa osatzeko.
- Nekazal eremuetako hondakin uren saneamenduak, eskaturiko behar izanen betetze maila gainbegiratzeko.

UR BALIABIDEEN KALITATEA ETA ESKURAGARRITASUNA

- ADIF-ek eginiko ikerketa hiodrogeologikoaren arabera, AHT-ren Arrasate-Elorrio zatiko plataformaren Udalatx tunelaren zulaketagatik, Kobate eta Bostiturrieta iturburuak afekzio posiblea, non bertatik Gesalibar eta Garagartza auzoak eta zein Markutele industrialdearen zati bat hornitzen diren.
- Jarduera ekonomikoek intzidentzia maila altua baliabide hidrikoen kalitatean Deba eta Aramaio ibaietan (araztegia hondakin uren lotura egiteko).
- Deba ibaira zuzenean doazen isurketen eta enpresen inbentarioa egiteke, 2004-2007 TEPea.

Eragin negatiboak:

URAREN KALITATEA

- 2007an, Deba ibaiaren uren kalitate eskasa Eskoriatza mailan, eta txarra San Prudentzian, hala ere, saneamenduarengatik, hobekuntza txiki bat nabari da.
- Aramaio erreka kalitate biologikoa, udaberrian ona baina urria udan.
- Errekuperazio beharreko ibai ertzak bezala lekutuak Aramaio Erreka Ederlan galdategiko gunea eta Deba Erreka Etxezarreta gunea.

Aukerak:

- Euri uren erabilpenerako sistema eraikitzen polikiroldegi berrian (Mojategi).
- Saneamendu sarea zein auzotara zabaldu daitekeen aztertzea.
- Autobidearen eraiketak udal uren saneamendu sareari eragin ez diezaion neurriak hartu dira.

Premiak:

- Hornidura sare zaharraren berrikuntza, zuntz-zementuzko hodiak kenduz.
- Euri eta iturburuko uren erabilpena.
- Biztanleriari eta erakundeei urrun kontroleko sistemen instalazioari buruzko informazioa zabaldu.
- Biztanleria eta jarduera sektoreen artean kontsumo murrizketarako ohiturak zabaldu.
- Kontsumitzaile handien gaineko kontrolarekin jarraitu.
- Kobate eta Benerasko putzuen analisisien emaitzak hobetu.
- Epeleko UZA martxan jarri.
- Saneamendu sistemaren egoera eta egokitasunaren inbentarioa osatu.
- Nekazal arloko hondakin uren saneamendu egokirako beharren eskariak eta betekizunak gainbegiratu.
- AHT-ren Arrasate-Elorrio zatiko plataformaren Udalatx tunelaren zulaketagatik, Kobate eta Bostiturrieta iturburuen afekzio posibleari ebazpena eman.
- Saneamendu sareko kartografia zehaztu.
- Biztanleko eta eguneko Industri ur eskaria murriztu.
- Ur-Baliabideen kalitatean jarduera ekonomikoek duten eragina neurtu.
 - Deba ibaira zuzenean doazen isurketen eta enpresen inbentarioa.
- Errekuperazio beharra duten ertzen hobekuntza (Aramaio erreka, Ederlan Galdaragintzaren gunean eta Deba Erreka, Etxezarreta inguruan).

05. Hondakinak

Eragin positiboak:

- Hondakinak tratatzeko azpiegituren behar adinako hornidura eta egokitzapena.
- 3 Garbigune daude eskualdean. Horietako bat, Ibarretakoa, Arrasate/Mondragón-en dago (1992an inauguratua).
- 2007ko apirilaz geroztik etxeko olioaren bilketa selektiboa egiteko sistema berritzailea.
- 2001az geroztik martxan dago Meatzerrekako (Arrasate/Mondragón) inausketa eta lorezaintza hondakinen depositua. Hondakinak konposta egiteko instalazio batera eramaten dira.
- Gehitu egin dira balorizazio instalazioetara bidalitako hondakinak (% 7,9 2003-2007 aldian. Balorizaziora bidalitako hondakinek 9.000 t-tik gora dira), batez ere honako arrazoi hauengatik:
 - herritarren sentsibilizazio eta informazio mailaren gorakada.
 - zerbitzu mankomunitatuen hobekuntza.
 - zerbitzu berriak sartzea: merkataritzako eta industriako kartoia (2000), inausketa eta lorezaintza (2001), berdegune mugikorra eta ehunak (2003), eta etxeko hondakin arriskutsuak Garbiguneetan (2003).
- Arrasate/Mondragón-i dagokionez, balorizazioak bailara mailan ematen den joera bera jarraitzen du.
- Kartoia (papera ez) biltzeko zerbitzua, eskualdeko dendei eta industria txikiei zuzendutakoa (2004an 663 t-tik gora bildu ziren) eta Debagoienako Mankomunitateak eskainitakoa.
- Birziklapen tasaren joera positiboa (% 23 2007an), Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Nagusian 2016rako ezarritako helburua (% 46,20) betetzeko aukera aurreikusten duena.
- Tratamenduko instalazioetara bidalitako HHen aprobeitxamendu handia (2007an % 89,7 balorizatutakoak eta % 10,3 ez onartutakoak).
- Garagartzako gunean, ibilgailuen mantenimenduaren osteko hondakinen kudeaketa egokia.
- Paraleloki eta Udalaren eskutik, egurrezko eta kartoizko xaxen trinkotze makina baten froga instalakuntza Azokan.
- Ez da identifikatu kontrolatu gabeko isurpen lekurik.
- Bilketa zerbitzuari buruzko kexak aldian aldikoak izaten dira.
- Bide garbiketa zerbitzuak esparru zabala estaltzen du (bide sarea, hustubideak eta kainu zuloak, koipe orbanak, merkatu txikia, udal azoka, eskola patioak, arratoi hilketa, landa auzoak, industrialdeak eta kirolguneak).

Eragin negatiboak:

- Eskualdeko biztanle kopuruak beherakada txiki bat izan duen arren, Debagoienako Hiri Hondakinen (HH) kantitatea handitzen joan da pixkanaka-pixkanaka (2007an 29.000 tonatik gora sortu dira) honako arrazoi hauengatik:
 - kontsumo indizeen gorakada.
 - produktuek gero eta ontziki eta enbalaje gehiago izateko joera.hala ere, Gipuzkoako batez bestekoa baino kantitate txikiagoa da.
- Hiri hondakinen kopuruak ere gora egin du Arrasate/Mondragón-eko kasuan 2005-2007 artean, eta bailara mailan sortutako hondakin kopuruaren %22 inguru suposatzen du.
- Azoka eta azoka txikietan sorturiko hondakinetan zati birziklagarria ez da banatzen.
- Ehunen bilketa selektiboaren tasa baxua (kudeatutako HHen % 0,14).
- Konpostaje tasa baxua (% 2,89, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Nagusian ezarritako % 10,8ko helburutik urrun).
- Hondakin tasan kudeaketari dagokion kopuru finkoa kobratzen da, sortutako kantitateen arabera zatitu gabe.
- Berrerabilera indize baxuak.
- Udalerriko ingurumeneko lehentasunezko jarduketei dagokienez, birziklapena eta bilketa selektiboa sustatzea azken tokian geratu da 2004ko eta 2008ko Ekobarometroan. Arrasatearren iritziz, hondakinak ez dira eragozpen gehien sortzen dituen ingurumen arazoa (% 3ko garrantzia du). Horren atzean dago herritarrek jasotzen duten errealitate faltsua.
- Oraindik ere birziklapenagatiko apatia dago. Erosotasuna eta alferkeria dira arrazoi nagusiak.
- Etxeko hondakinen banaketan eta sailkapenean eragina duten faktoreen artean garrantzi handia du etxean askotariko poltsak edukitzeko espazio gutxi izateak eta denbora ezak.
- 2004an, ezagutza maila baxua eta Garbigunearen erabilera txikia (herritarren % 59ak bakarrik).
- Hondakin industrial gehiago sortzen dira, gehienak balorizaziora eramaten diren arren.
- Ez dago informaziorik nekazaritzan, abeltzaintzan eta eraikuntza sektorean sortzen diren hondakinei buruz.
- Txakur gorotzak biltzeari dagokionez, txakurrentzako txizatokiak eta zakarrontziak poltsa eta guzti jarri diren arren eta jardunbide egokiaren gida banatu den arren, espero zena baino erantzun txikiagoa izan da jabeen aldetik.

Aukerak:

- Datozen urteetarako HHen balorizazioa gehitzea aurreikusten da, PIGRUG edo Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Nagusiko ekintzak martxan jartzearen ondorioz.
- Edukiontzia berdearen bitartez egiten den etxeko olioaren bilketa zerbitzuaren emaitza oso positiboak.
- Merkaturia aztertzen ari dira, fabrikazio industrialaren egiteko eta merkaturatzeko.
- Udalaren eskutik Mankomunitateari eskatua merkaturietan bilketa selektiboa egiteko aukera.
- Udalak beharrezkoa ikusten du nekazar- abeltzaintzako hondakinen kudeaketa egokiari buruzko informazioa herritarrei zabaltzea.

Premiak:

- Marka zuriei (Eroski...) enbalajeak jatorrian murrizteko eskatzea.
- Plastikozko poltsak erretiratzeko eta paperezkoak jarritzeko, merkatarien elkartarekin bat egitea Erosketa berdea sustatzeko.
- Berrerabilera areagotzeko jarduketak bilatzea.
 - Konpostajea sustatzea (Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Nagusiko ekintzak martxan jartzearen ondorioz, esaterako, konposta egiteko materia organikoaren bilketa selektiboa edo energia berreskuratuz hondakinak erraustea, HHen balorizazioa gehitzea aurreikusten da).
 - Ehunen bilketa sustatzea.
- Etxeko hondakinen birziklapena eta hiriko produkzio sektoreek sortutakoena sustatzea.
 - Udalaren eskutik Mankomunitateari eskatua merkatuetan bilketa selektiboa egiteko aukera.
- Udalak sortutako hondakinen kudeaketan prebentzio politika garatzea.
- Garbigunearen ezagutza eta erabilera maila areagotzea.
- Kontsumo arduratsuaren eta hondakinen kudeaketa egokiaren arloan herritarrak hezi eta sentsibilizatzea.
- Txakur gorotzen bilketaren inguruan jabeen erantzuna hobetzea, txakurrentzako txizatokiaren eta poltsadun zakarrontzien erabilera eta jokabide egokia sustatuz.

06. Energia

Eragin positiboak:

- 2001etik aurrera energia berriztagarrien kudeaketa eta efizientzia energetikoaren inguruko azterketak burutuak.
- Argiteria publikoko 64 instalakuntzatik hamaseiek argi-fluxuen erregulazilea dute eta hamabik telekudeaketa.
- Nahiz eta plan zehatzik ez izan, iraunkortasuneko irizpideak kontuan hartuta Udala pixkanaka argiak aldatzen ari da.
- 2002 eta 2005 artean eguzki plaka fotovoltaiakoak jarrita tokiko administrazioaren eraikin batzuetan (Udalako Ingurumen Eskolan, Ferixakekuan, Erguin eta Uribarriko eskola publikoetan, Emakume Txokoan eta Mojategiko kirol instalazioetan).
- Udalerriko semaforo gehienetan instalatuta LEDS teknologia.
- Sodiozko lanparak dira Arrasate/Mondragón-eko argiteria publikoaren %95a.
- Udalak argiteria publikoa pizteko bi sistema ditu: telekudeaketa eta fotozelulak.
- Energia aurreratzea eta efizientzia energetikoa Aste Berdean eta Eskolako Agenda 21ean lantzen diren gaiak.
- 2008an efizientzia energetikoaren egiaztagiria zuten 200 etxebizitzek.

Eragin negatiboak:

- Nahiz eta 2002-2005 artean udalerriko energia kontsumoak behera egin, 2006an berriro igo zen, lehenengo urteko kontsumoa gaindituz.
- 2002 eta 2006 bitartean gora egin du %11an etxeetako elektrizitate kontsumoak, nahiz eta herritarren %71ak elektrizitate kontsumoa murrizteko borondatea duela esan eta %92a energia aurrezteko alde dagoela agertu, 2008ko Ekobarometroaren arabera.
- 2002 eta 2006 artean, sektorekako kontsumo elektrikoaren arabera, industria da kontsumo handiena duen sektorea.
- 2004 eta 2006 bitartean gas naturalaren kontsumoa askoz handiagoa da industria sektorean zerbitzuenean baino.
- Udaleko zerbitzu eta eraikinetan ematen de elektrizitate kontsumoa pixkanaka gora egin du 2005etik 2007ra bitartean (%6,7ko igoera). Epe horretan, argiteria publikoa da gehien kontsumitzen duen sektorea.
- Udalaren arabera, beharrezkoa da udaleko energia kudeaketa egoki baterako giza baliabideak gehitzea.
- Udaleko eraikinetan jarritako plaka fotovoltaiakoek sortzen dute energia ez da zuzenean erabiltzen, saldu baizik.

Aukerak:

- 2008an Arrasateko Udalerrian Eguzki Energia Kaptatzeko Sistemak Jartzeko Arautzen duen Udal Ordenantza onartu zen.
- Udalak udalerriko semaforo guztietan jarri nahi du LEDS teknologia.
- 15era igo nahi da telekudeaketa sistema izango duten argiteria publikoko instalazio kopurua.
- Urbanizazioen Udal Ordenantzak argiteri publikoaren mantenimendu plana jasoko du, argi-kutsaduraren legera egokitzeke.

Premiak:

- Udalaren energia kudeaketa hobetzeko giza baliabideak gehitu.
- Baliabide naturalen, energiaren, kontsumo-ohituren, hondakinen, etab.en gastua Arrasate/Mondragón-eko familiekin lantzeko programa abian jarri.

07. Ingurumen kalitatea

Eragin positiboak:

KUTSADURA ATMOSFERIKOA (AIREA ETA ZARATA)

- Airearen eta zarataren kalitatearekin lotuta kutsadura ahalmen txikiko industria sektorea.
- Debagoiena eskualdeko kutsatzaileak neurtzeko estazio finko bakarra Arrasate/Mondragón-eko erdigunean dago (Laubide enparantzan).
- PM10eko metal kontzentrazioa mugako balioen eta legerian ezarritako xede balioen azpitik.
- NOx isuriek indarreko araudia betetzen dute.
- San Josepe harrobian egiten den jarduera bertan behera uzteak eragin positiboa izango du material partikulatuaren (PM10) eta nitrogeno oxidoaren (NOx) analisiaren emaitzetan.
- Udalaren iritziz, kalitate akustiko orokorra onargarria da.
- Salaketen espediente kudeatzailearen udal erregistroa egotea.
- Prebentzioko kanpaina gehienak kutsadura atmosferikoa prebenitzera zuzendutakoak.

LURZORUEN KUTSADURA

- Eusko Jaurlaritzarekin 2 hitzarmen sinatu dira lurzoruak lehengoratzeko (Zerrajera eta Akei zabortegea).
- Hirigintza Saileko teknikariek Lurzoru eta Hirigintza Lege berriarekin zerikusia duten ikastaroetan parte hartu zuten (2007).
- Ingurumen Saileko teknikariak Klima Aldaketari buruzko Nazioarteko Konferentzian izan ziren (2007).

Eragin negatiboak:

KUTSADURA ATMOSFERIKOA (AIREA ETA ZARATA)

- Aire kalitate oneko edo onargarriko egunen portzentajea beste udalerrri batzuetakoa baino (Zarautz) txikiagoa da baina 2005-2007 aldian ez zen erregistratu aire kalitate arriskutsuko egunik.
- Giza osasuna material partikulatuaren aurka babesteko arloan indarreko legeria (1073/2002 EDaren arabera) ez zen bete 2003an eta 2004an, batik bat udalerriko trafiko handiagatik. (GI-627 errepideak 116 eta 213 Kg. PM10/urteko mailak ditu San Prudentzio eta Besaide poligonoaren artean).
- Merkantziak garraiatzen dituzten ibilgailu astunen trafiko handia dago eskualdean eta, horrek, PM10en mailak igotzen laguntzen du.
- Industrialdeek PM10 isurtzeari buruzko kexak daude.
- Harrobietan PM10 isurtzearen ondoriozko eraginak, garrantzi handiko arazoa ez bada ere.
- NOx-en isurketen % 79 trafikoak sortzen du, hain zuzen ere, herri arteko trafikoak.

Eragin negatiboak:

KUTSADURA ATMOSFERIKOA (AIREA ETA ZARATA)

- Debagoienari dagokionez, Arrasate/Mondragón-en izaten dira NOx isurketa handienak, hein handi batean herri barruko garraioak eragindakoak (25001-37500 kg/urteko). Herri arteko garraioari dagokionez, NOx maila handienak San Prudentzio eta Arrasate/Mondragón-eko Besaide poligonoaren artean izaten dira.
- Gaueko aisiak eragin handia du kalitate akustikoan tabernak ixteko ordutegi erregimenagatik eta kaleetan gauez pilotzen den jendetzagatik (alde zaharrean, Zarugalde kalean eta unibertsitate inguruko Arimazuri plazan).
- Merkataritza establezimenduetako zamaletako sortutako zarataren eragozpenak.

LURZORUEN KUTSADURA

- Kutsatuta egon litezkeen lurzoruei buruzko HAPNren hirigintza fitxak eguneratzeko daude.

Aukerak:

- Kutsadura Atmosferikoaren Diagnostikoa eta Airearen Kalitatearen inguruko Ekintza Plana Debagoiena eskualdean (2006).
- Ingurumeneko zarataren erregulazioa jasotzen duten 2 udal ordenantza (1984koa eta 1998koa).
- Hiri eremuko Zaraten Mapa (2002).

Premiak:

- Kutsadura atmosferikoaren zaintza sareko datuen kontrolarekin eta zaintzarekin jarraitzea.
- Udalerriko airearen kalitatea hobetzeko estrategia prestatzea, Debagoiena eskualdeko Airearen Kalitatea Hobetzeko Ekintza Planarekin bat datorrena.
- Akustika arloko legeria zorrotzasunez beteko dela bermatzea.
- Lurzoru kutsatuak lehengoratzeko lanean jarraitzea.
- Kutsatuta egon litezkeen lurzoruei buruzko HAPNren hirigintza fitxak eguneratzea.

08. Arriskuen kudeaketa

Eragin positiboak:

- Deba eta Aramaio ibaien eta Kanpantzar errekaen ibilguetan uholdeak prebenitzeko jarduketak.
- Hiri bilbean lerraduragatiko arrisku txikia.
- Arrisku industrial ez-aipagarria.
- Elurretarako Larrialdi Plana idatzia eta koordinatzaile arduraduna izendatua.
- Idatzita honako hauen Larrialdi Planak:
 - BAZ. 2006.
 - Kulturate. 2007.
 - Euskaltegi. 2007.
 - Udaletxea. 2007.
 - Mojategi. 2008.
 - Zaharren egoitza. 2008.
- Sei IPPC jardueretatik lauk ingurumeneko Mendeko Baimen Bateratua dute eta bi Baimena izapidetzen ari dira.

Eragin negatiboak:

- Akuiferoen kutsaduraren aurrean urrakortasun handia edo oso handia hiri bilbean.
- Erauzketa jardueren eragina ingurumenean.
- Larrialdietarako Udal Planaren zirriborroa berrikusteko. Koordinatzaile arduraduna ere izendatzeke dago.
- Ez dago sailkatutako jardueren zerrendarik baina Udalak jarduera ekonomikoen espedienteen kontrola darama.
- Jarduera, bolumen edo eragin maila handiko industrien uretara egindako isurketen inbentarioa egiteko.
- Ez dira ezarri egitura ekonomikoa ingurumenarekin lotzea sustatzeko ekimenak baina Udalak parte hartu zuen Ekitalde AL21-Enpresan.
- UDALERRIAN ARRISKUEN KUDEAKETA ETA PREBENTZIOA HOBETZEA izeneko 12. lerro estrategikoaren exekuzio maila baxua (% 15). Bost ekintzatatik hiru hasi gabe daude oraindik.

Aukerak:

- San Josepe Bi harrobia lehengoratzeko ideia lehiaketa.

Premiak:

- Larrialdietarako Udal Planaren zirriborroa berrikustea eta koordinatzaile arduraduna izendatzea.
- Eraikin publikoen Larrialdi Planak idazten jarraitzea.
- Tresna informatizatuan oinarrituta, jarduera ekonomikoen (sailkatuak eta salbuetsiak) errolda sortzea eta eguneratuta edukitzea eta jarduerak erregularizatzea.
- Jarduera, bolumen edo eragin maila handiko industrien uretara egindako isurketen inbentarioa egitea.
- Egitura ekonomikoa ingurumenarekin lotzea sustatzeko ekimenak ezartzen berriro hastea.
- UDALERRIAN ARRISKUEN KUDEAKETA ETA PREBENTZIOA HOBETZEA izeneko 12. lerro estrategikoari bultzada ematea.

09. Udal administrazioaren erosketa publikoa eta ingurumen kudeaketa

Eragin positiboak:

- Udaleko langileek parte hartu dute erakunde publikoek (HAEE, Ihobe, Eusko Jaurlaritza...) eta ekimen pribatuek antolatutako ingurumen (energia, ura, klima aldaketa, berdeguneak...) eta EKPB (Erosketa eta kontratazio publiko berdea) arloko prestakuntza ikastaroetan.
- Ez dago kontratu mota desberdinetan EKPB jasotzen duen prozedura estandarizaturik, Ihobek emandako ereduaren bitartez zenbait kontratutan ingurumen irizpideak txertatzen ari diren arren.
- Udaleko baldintza teknikoaren agiriaren iraunkortasun irizpideak sartzea: paperaren erosketa eta erabilera, lorezaintza kudeaketa, bide garbiketa, ordenagailuen erosketa, eraikinen garbiketa...
- Udal lokal eta zerbitzuetan burututako ingurumen arloko jarduketaren enblematikoak:
 - Papera birziklatzeko edukiontziak jartzea.
 - Bidezko merkataritzako saltzeko makina.
 - Kafearentzako plastikozko basoak kentzea.
 - Eraikin publikoetan eguzki plaka monitorizatuak jartzea.
 - Zenbait eraikin publikotako irisgarritasuna (eraikin publikoak eta herri lanak).
- Udalak Ekoscan Ziurtagiriaren auditoriaren hirugarren urtea gainditu du 2009an.
- Posta elektroniko bidez ezarritako ingurumen irizpideen berri emango zaie udaleko langileei (paperaren erosketa eta erabilerak, ordenagailu, inprimagailu eta fotokopiagailuen erosketa, bide garbiketa, eraikinen garbiketa...).
- Udalean inplementatutako jarduketari buruz herritarrak informatzeko bi bide daude: TXIP 21 aldezkaria eta prentsa oharrak.

Eragin negatiboak:

- Ez da ohikoa kontratazioan ingurumen irizpideak erabiltzea, Ingurumen Sailean bertan egiten denean izan ezik.
- Udalaren hornitzaile katearen kudeaketa maila baxua. Ez da ohikoa hornitzaileekin ingurumen irizpideen inguruko bilerak egitea.
- Udaleko langileei zuzendutako sentsibilizazio ekintzen maila baxua EKPB arloan.

Aukerak:

- 2005eko otsailean sinatutako konpromiso instituzionala lhoberekin “Udaleko baldintza teknikoen agirietan iraunkortasun irizpideak sartzeari” buruz.
- Erosketa Berdearen Ekitaldean parte hartu da.
- Ecoinstitut, lhobek baldintza pleguak prestatzeko kontratatutako aholkularitza zerbitzu puntuala.
- Beste udal edo erakunde batzuekiko lankidetzeta eta komunikazioa, EKPB Ekitalderen bitartez administrazioan ingurumen irizpideak txertatzeko.
- 2005en onartu zen kontratazioko prozedura administratiboak arautzeko udal ordenantza.
- 2005ean onartu ziren papera erosteko eta erabiltzeko bi jarraibide.
- 2005ean argitaratu zen “Bulego osasuntsuagoa, iraunkorragoa eta ekologikoagoa” izateko eskuliburua, Udaleko langileen artean banatu eta hainbat enpresatara bidali zena.

Premiak:

- Udal kudeaketan eta baldintza agiriak prestatzeko orduan ingurumen irizpideak ezartzen jarraitzea.
- EKPBko prozedura estandarizatuak idaztea.
- lhoberekin sinatutako “Udaleko baldintza teknikoen agirietan iraunkortasun irizpideak sartzeari” buruzko konpromiso instituzionalari eustea.
- Ecoinstitut, lhobek baldintza pleguak prestatzeko kontratatutako aholkularitza zerbitzuari eustea.
- Beste udal edo erakunde batzuekiko lankidetzarekin eta komunikazioarekin jarraitzea, EKPB Ekitalderen bitartez administrazioan ingurumen irizpideak txertatzeko.
- EKPB Ekitaldean parte hartzen jarraitzea.
- Udalaren hornitzaile katearekin harremanak areagotzea.
- Udaleko langileei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak sartzeta EKPB arloan.
 - EKPBr buruzko prestakuntza eskaintzea bai Kontratazio Sailari eta bai gainerako sail inplikatuiei.

10. Komunikazio, sentsibilizazioa eta herritarren parte-hartzea

Eragin positiboak:

- Herritarrei ingurumenari buruzko informazioa emateko kanal egonkorak egotea.
- Udalaren arabera, komunikaziorako tresna egokiak eta eskuragarriak.
- Herritarrei, eskola umeei eta helduen hezkuntzako ikastetxeei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak.
- Eskola Agenda 21 ikastetxe guztietan ezarrita.
- Udalaren arabera, udalak sortutako espazio parte hartzaileetan sortutako eta jakineko prozesuei lotutako proposamenen txertatze maila altua: Agenda 21en Ekintza Plana, Arrasate Iraunkorraren Ekintza Plana eta Mugikortasun Plana.
- Elkarte egitura aberatsa eta askotarikoa.

Eragin negatiboak:

- Herritarrek parte hartzeko tresnak, bertan behera geratu direnak (Ingurumeneko Arloko Kontseilua, Etorkizuneko Foroa) eta lehen tokiko iraunkortasun planak egiten parte hartu dutenak (Agenda 21, Arrasate Iraunkorra, Mugikortasuna).

Aukerak:

- Tokiko Agenda 21 Planaren Berrikuspena.
- Herritarren % 29ak dio TA21eko foroetan parte hartzea gustatuko litzaiokeela, % 61ak ezetz eta % 10ak ez du erantzun.

Premiak:

- Herritarren parte hartzea aktibatzea Udalean partaidetzarako sailak sortuz.
- Partaidetzarako organo egonkor bat berrabiaraztea.
- Eskola Agenda 21ekin jarraitzea.

11. Barne koordinazioa eta zeharkakotasuna

Eragin positiboak:

- 2001ean lehen diagnostikoa idatzi zenetik gaur egun arte TA21eko koordinatzaile teknikoaren irudia egotea.
- Ekintza Planaren eraginpeko esparruetan parte hartutako teknikarien ordezkaritza handia (Sail guztiak).
- Sailen arteko behin-behineko koordinazioa, hainbat saili aldi berean eragiten dien helburuak lortzeko: Merkataritza Plana, Hezkidetzeta Planak, Inmigrazio Plana...
- Sail guztien parte hartzearekin, planaren ezarpenaren urteko ebaluaketa.
- 2008an, ebaluatutako azken urtean, Tokiko Ekintza Planaren % 46ko ezarpen portzentajea. Datua oso ona ez bada ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan inplementatutako gainerako Agenden batez bestekoa baino altuagoa da (% 32).
- Ekintzen lerro estrategikoen arabera egikaritzea ona da gehienetan.

Eragin negatiboak:

- Adierazleen kalkulu prozesuaren ezarpena, irismena eta zeharkakotasuna burutu gabe.
- MUGIaren erabileraren ezarpen maila baxua (ia TA21en Ekintza Planaren ebaluazioetan bakarrik erabiltzen da).
- Udal zerbitzuen arteko komunikazio tresna egonkorrik ez egotea, esaterako, sail arteko mahaiak. Horrek, zenbait kasutan, zaildu egiten du beraien arteko zeharkakotasuna.
- Ez dago TA21en plangintza eta jarraipen espezifiko egiteko eta hari bultzada emateko mekanismo edo organo teknikorik.
- TA21 prozesurako lidergoko eta laguntza politikoko maila eskasa.
- Ez dago TA21en plangintza eta jarraipen espezifiko egiteko eta hari bultzada emateko izaera politikoko mekanismo edo organo teknikorik.

Aukerak:

- Tokiko Agenda 21en berrikuspena.
- Iraunkortasunean eragina duten zenbait plan edo programa hein batean ebaluatu dira lehenengo ekintza planaren bitartez (Mugikortasun Plana, Irisgarritasun Plana, Berdintasun Plana, Euskara Biziberritzeko Plana...).

Premiak:

- Adierazleak kalkulatzeko prozesuaren ezarpena, irismena eta zeharkakotasuna neurtzea.
- MUGIa erabiltzeko aukerak bilatzea (aurrekontuak egiteko, etab.)
- Sailen arteko mahai egonkorak sortzea sail bakoitzaren proiektuak ezagutzen laguntzeko eta sinergiak sortzeko.
- TA21en plangintza eta jarraipen espezifikoak egiteko eta hari bultzada emateko mekanismo edo organo tekniko eta politikoa sortzea.
- TA21 prozesurako lidergoa eta laguntza politikoa indartzea.
- TEPen hurrengo berrikuspenean plan guztiak txertatzea (legegintzakoak, estrategikoak...).

12. Biztanleria

Eragin positiboak:

- 2000tik aurrera etorkinak sartu dira apurka-apurka eta kopuru txikian. Modu horretan, ondo egokitu dira eta, neurri batean, biztanleriaren hazkunde begetatibo negatiboa arindu du.

Eragin negatiboak:

- Hazkunde begetatibo negatiboa (heriotza tasa jaiotza tasa baino handiagoa da).
- Itsulapiko formako biztanle piramidea, haur indize txikia adierazten duen oinarri txikikoa.
- 80ko hamarkadaz geroztik biztanle kopurua murriztu egin da baina, azken urte hauetan, beherakada ez da hain nabarmena izan. Gipuzkoako barrualdeko udalerri gehienetako joera berdina da eta kostako herrietan ikusten den egoeraren kontrakoa.
- Biztanle kopuruaren atzeranzko dinamikan dituen eraginak:
 - Jaioterrira itzultzea.
 - Erroldan bajak eragiten dituen bigarren etxebizitzaren erosketa.
 - Ikasketengatiko bajak, hainbat urteren ondoren berreskuratu egiten diren arren.
- Nukleo barreiatuetan biztanleria tasa baxuak (biztanleen % 5) landa eremuan jende kopurua asko murriztu delako (1981etik 2000ra bitartean % 44,6 murriztu da landako biztanleria).
- Lanbide foku bai baina egoitza foku ez izatea. Horrek zalantzak sortzen ditu etorkizunera begira AP-1 irekitzeari dagokionez eta biztanle berriak finkatzeko ahalmenari dagokionez.

Aukerak:

- Arrasate/Mondragón-ek eskualdeko hiriburu rola du.

Premiak:

- Hazkunde begetatibo positiboa berreskuratzea.
- Biztanle ihesa ekiditea.
- Landa eremuan biztanle kopurua murriztea ekiditea.

13. Garapen ekonomikoa eta lan merkatua

Eragin positiboak:

JARDUERA EKONOMIKOAREN EGITURA ETA MAILA

- Gipuzkoako batez bestekoa baino per capita BPGd handiagoa.
- Industria jarduera oso finkatua (erregimen kooperatiboa nabarmentzen da).

ENPLEGUA ETA LAN MERKATUA

- Biztanleria aktiboa hazten ari da.
- Udalerrian bertan lan egiten duen biztanleria okupatuaren (% 66) portzentaje handi bat (% 87) pozik dago udalerrian bertan lan egiten duelako.
- % 50eko autosufizientzia indizea du eta, horrek, laneko zentro erakarle bihurtzen du.
- Nahikoa enplegu zerbitzu: Lan saila, Gazteria saila eta Debagoieneko Garapen Agentzia.
- Gizarteratzeko hitzarmenetan izena emandako herritarrentzako Auzolan Programak gero eta harrera indize hobeak ditu.
- Lan merkatuan hutsik zeuden espazioak bete dituzten dezente etorkin etorri dira.
- Lan merkatura doitutako irakaskuntza arautuaren ibilbideak eta programak.

BIGARREN SEKTOREA

- EAEko industria gune garrantzitsuenetakoa.
- Mugimendu kooperatibo sendoa; Mondragón Corporación Cooperativaren (MCC) egoitza nagusia Arrasate/Mondragón-en dago.
- Tokiko ekonomian garrantzi handia.

ZERBITZU SEKTOREA

- Eskualde buru izateko bokazioa (presentzia: aldizkako kontsumo ondasunen % 61,3 eta hurbileko merkataritzaren % 38,5).
- 2003tik 2007ra bitartean txikizkako merkataritzaren dentsitatea handitu egin da pixkanaka-pixkanaka.

TURISMO ETA OSTALARITZA SEKTOREA

- 2008an, Kalitate Turistikorako Konpromisodun hotel bat eta 2 jatetxe.

Eragin negatiboak:

JARDUERA EKONOMIKOAREN EGITURA ETA MAILA

- Gaur egun kontrako giro ekonomikoa dago, krisia tokiko jarduera ekonomikoan izaten ari den eragin negatiboaren ondorioz.
- Desoreka ekonomikoa (industria sektoreak hirugarren sektoreak baino garrantzi handiagoa du).
- Gasteizek eragiten duen gastu ihesa, seguruenik AP-1 irekitzeak areagotuko duena.

Eragin negatiboak:

ENPLEGUA ETA LAN MERKATUA

- Industria sektoreko krisiak langabezia tasaren joera aldatu du. 2009an handiagoa da langabezian dauden gizonen kopurua emakumeena baino. (2009ko martxoan, 807 langabetu gizonak dira eta 693 emakumeak).
- 2008an gora egin du langabezia tasak (2007ra arte % 5eko egiturazko langabezia izan duen udalerria).
- 2005etik 2007ra bitartean murrizten joan dira erregistratutako kontratuak.
- Lanerako prestakuntzaren eta etengabeko prestakuntzaren eskaera ezari lotutako prestakuntza eskaintza txikia. Beste prestakuntza espazio batzuk merkatuaren premietara egokitzen joan dira.

LEHEN SEKTOREA

- Ez da zehaztasunez ezagutzen lehen sektoreko errealitate ekonomikoa.
- Udal merkatuko postuen okupazio txikia eta erosle kopurua ere txikia, batik bat gazteenen artean.
- Sektore honetara jardutearen motibazio falta handia dago, ziurrenik industriaren eta zerbitzuen errentagarritasunarengatik eta bizi baldintzengatik baserriaren aurrean.

ZERBITZU SEKTOREA

- Handizkako eta txikizkako merkataritza jardueren bariazio negatiboa.
- Merkataritza eskaintza txikia auzoetan.
- Erosketak egiteko Gipuzkoako herririk garestiena, Donostia baino ere garestiagoa (Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Erakundearen arabera).

TURISMO ETA OSTALARITZA SEKTOREA

- Jatetxe eta taberna jardueren bariazio negatiboa.
- Ostalaritza sektorearen profesionalizazio maila baxua.
- 2008an Kalitate Turistikorako Konpromisoaren ziurtagiria lortu zuten diplomadunen arabera, Debagoiena eskualdea «gaizki sustatuta» dago.

Aukerak:

- Udal merkatua indartzeko eta herri barruko merkataritza jarduerako elementu garrantzitsu bihurtzeko soluzioak detektatzeko azterlana egitea eta hura birmoldatzeko proposamenak planteatzea.
- Ibai-Arte merkataritza elkartearen bizitasuna.
- Banatzaileen joera erdiguneko zonak tamaina txikiagoko formatuekin berriro okupatzeko.
- Erakargarri turistikoak: monumentu eta paisaia aberastasuna eta kooperatibismoarekiko lotura.

Premiak:

- Prestakuntza eskaintza (lanerako prestakuntza eta etengabeko prestakuntza) handitzea eta herritarren egungo premietara egokitzea.
- Hirugarren sektoreak Gasteizek eragiten duen eta AP-1 irekitzen denean areagotu egin daitekeen gastu ihesari aurre egiteko alternatibak bilatzea.
 - Merkataritza sektorea indartzea eta bultzatzea.
 - Kalitateko merkataritza lehiakorra bultzatzea.
 - Auzoetan merkataritza eskaintza bultzatzea.
 - Udal merkatua indartzeko eta herri barruko merkataritza jarduerako elementu garrantzitsu bihurtzeko soluzioak detektatzea eta hura birmoldatzeko proposamenak planteatzea.
 - Turismo eta ostalaritza sektorea indartzea eta bultzatzea.
 - Ostalaritza sektoreko profesionalizazioa handitzea.
 - Eskualdea sustatzeko jarduketak proposatzea.
 - Monumentu eta paisaia aberastasunari eta kooperatibismoarekiko loturari balioa ematea.
- Emakumeak lanean txertatzeko politikak sustatzea.
- Lehen sektorearen alderdi ekonomikoak aztertzea.

14. Ongizatea eta gizarteratzea

Eragin positiboak:

EKITATEA ETA GIZARTE ZERBITZUAK

- Honako hauek bermatuko dituzten gizarte zerbitzuak:
 - Etxean bertan laguntzeko jarduketak.
 - Pertsonak, familiak eta taldeak gizarteratzea erraztuko duten baliabideak eta bitartekoak ematera zuzendutako esku hartze programak, bazterketaren prebentzioari lehentasuna emanaz.
 - Zerbitzuen izapidetzea.
 - Ostatu alternatiboa.
 - Urgentziazko harrera zerbitzua.
- Prebentzioaren tratamendua hiru esparrutan: familian, eskolan eta aisian.
- Eusko Jaurlaritzak sustatutako eta Udalaren Gizarte Zerbitzuarekin gizarteratzeko hitzarmenak sinatuta dituzten pertsonen zuzendutako Auzolan programaren gero eta harrera indize hobeak.
- Gizarte zerbitzuetako per capita gastuaren igoera.

BERDINTASUNA

- Berdintasun sailaren ibilbide luzea.
- Berdintasun sailak genero faktorea kontuan hartzen duten beste sailekin (hezkuntza saila, lan eta garapen ekonomiko saila, gizarte zerbitzu saila...) zeharka lan egiten dute.

BIZIKIDETZA

- Ekobarometroaren arabera, udalerrian jendeak sentitzen duen segurtasun pertsonalaren mailari dagokionez, biztanleen % 16k dio oso gogobeteta dagoela (2004an % 35) eta % 74ak dio dezente gogobeteta sentitzen dela (2004an % 60 inguru).

OSASUNA ETA ZERBITZU SANITARIOAK

- Udal zerbitzuetan hobekuntzak eskaintzeko berrikuntzak.
- Aztura osasungarrien sustapena ludoteka eta gazte txokoetan.
- Aztura osasungarrien sustapena irakaskuntzaren bitartez.

Eragin negatiboak:

EKITATEA ETA GIZARTE ZERBITZUAK

- Laguntza ekonomikoak edo gizarteratzeko laguntzak behar dituzten familien hazkuntza. 2009an gehitu egingo direla aurreikusten da.
- Aktiboan dagoen lan taldearen kasuan ez da betetzen Administrazio Publikoko langile guztien % 2 pertsona ezgaituak izatea.
- Ez daude finkatuta udal kontratazioetan klausula sozialak sartzeko jarraitu beharreko irizpideak.
- Okupazio handia zahar etxeetan.
- Gizarte zerbitzu sailaren eta beste sailen artean (ekonomia, gazteria, berdintasuna...) harreman estua dagoen arren, harreman hori ez dute koordinazioko protokoloek arautzen, borondatezkoa eta inprobisatua da.

BIZIKIDETZA

- Ekobarometroaren arabera, udalerrian jendeak sentitzen duen segurtasun pertsonalaren mailari dagokionez, biztanleen % 16k dio oso gogobeteta dagoela (2004an % 35) eta % 74ak dio dezente gogobeteta sentitzen dela (2004an % 60 inguru).
- 2003tik 2007ra bitartean handitu egin da delituen indizea. Hala ere, Tolosako eta Zarauzko kopuruekin alderatzen baditugu, Arrasate/Mondragón-eko datuak hobeak dira.

TELEKOMUNIKAZIOAK ETA EKT

- EKTek etxeetan eta enpresetan duten presentziari eta erabilera mailari buruzko informazio gutxi udalaren aldetik.
- Arrail digitala jasan dezaketen biztanle segmentuak zorrotasunez ezagutzen ez diren arren, adin ertaineko emakumeek eta adin nagusikoek dute arriskurik handiena.

Aukerak:

- Lankidetza programetarako dirulaguntzak bikoiztu egin dira eta ingurumen ikuspegitik iraunkortasun izaera duten proiektuak baloratzeko formulak aplikatzen dira.
- Hezkidetza programak.
- Berdintasun planak → 2009a baloraziorako eta hausnarketarako urtea da hirugarren plana garatzeko (4 urteko perspektibarekin).
- Tratu txarrei aurre egiteko udalaren ekintza plana.
- Txikitxoko eta Gaztenahaste buletinak.
- Arrasate/Mondragón-en bizi diren Etorkinen Kolektiboari buruzko Azterlana eta Diagnostikoa → Ekintza Plana 2009an.
- 2008an jarri zen martxan Kaleko Hezitzaileen proiektua (Gizarte Zerbitzu sailaren eta Gazteria sailaren arteko lankidetza).
- Drogamenpekotasunaren Prebentziorako Plan Berria, 2009rako aurreikusia.
- Gertutik aldizkaria, gurasoak seme-alaben garapen pertsonalari eta heziketari buruz informatzea helburu duena.

Premiak:

- Laguntza ekonomikoa edo gizarteratzeko laguntza behar duten familien 2009ko gehikuntza posiblea aurreikustea eta erantzuna ematea.
- Administrazio Publikoko langileen % 2 pertsona ezinduak izatea lortzea.
- Udal kontratazioetan klausula sozialak sartzeko jarraitu beharreko irizpideak finkatzea.
- Zahar etxeetan okupazio handiaren aurrean iraunkortasunezko irtenbideak bilatzea.
- Gizarte zerbitzuen eta sail elkartuen koordinaziorako tresna egonkorra sortzea.
- Herritarren segurtasun maila areagotzea.
- Hirigintza arloan hobekuntzak egitea emakumearen segurtasuna bermatzeko.
 - Emakumeentzako autodefentsa ikastaroa egiten jarraitzea.
 - Urbanizazioen diseinuetan segurtasun irizpideak barneratzen eta aplikatzen jarraitzea (iluntasuna, leku ezkutuak, pasabide babes gabeak...).
- EKTek etxeetan eta enpresetan duten presentzia eta erabilera maila aztertzea.
 - Txertaketa hitzarmenen diagnostikoan EKTei buruzko inkesta txiki bat egitea.
- Arrail digitala jasan dezaketen biztanleen artean, batik bat adin ertaineko emakumeen eta adin nagusikoen artean, EKTen ezagutza eta erabilera sustatzea.
- Lankidetzak programak diruz laguntzeko orduan iraunkortasun lerroa baloratzea.
- CCPVko baldintza agerietan irizpide sozialak txertatzea.
- Hezkidetzak programekin jarraitzea.
- 2009an 2004-2008 bigarren Berdintasun Plana baloratzea eta hirugarren plana (2010-2014) prestatzea.
- Tratu txarrei aurre egiteko jarduketak planekin jarraitzea.
- Txikitxoko eta Gaztenahaste buletinak zabaltzen jarraitzea.
- Arrasate/Mondragón-en bizi diren Etorikinen Kolektiboari buruzko Ekintza Plana prestatzea.
- Baztertzeko arriskuan dauden gazteak identifikatuz Kaleko Hezitzaileak proiektuarekin jarraitzea.
- 2009an Drogamenpekotasunaren Prebentziorako Plan Berria egitea.
- Gertutik aldizkaria eskualde osora zabaltzea.
- Ekobarometroaren arabera, lehentasuna eman beharreko alderdi sozial nagusiak finkatzea:
 - etxebizitzarako irisgarritasuna bultzatzea (% 59).
 - zerbitzu sanitarioak gehitzea eta hobetzea (% 39).
 - gazteentzako zerbitzuak gehitzea (% 39).

15. Hezkuntza, euskara, kultura, kirola eta gazteria

Eragin positiboak:

HEZKUNTZA

- 2009an eskola bat desagertu den arren, udaletxearen arabera, hezkuntza azpiegitura sendoa da (lau eskola -Arrasate Herri Estola, Arizmendi ikastola, Arrasate Institutua eta Goi Eskola Politeknikoa- hezkuntza ez unibertsitarioa eskaintzeko eraikinak dituzten zenbait eskola eta zentro unibertsitario bat).
- Udalerriko haur hezkuntzako unitateen gehikuntza.
- Lehen eta bigarren hezkuntzako eta batxilergoko eskaintza estalita. 2009-2010 ikasturtetik aurrera institutuan eta Arizmendi ikastolan batxilergoko kurtso biak eskainiko dituzte.
- Heziketa zikloetako hezkuntza euskara eta lan eskarietara doitzen doa, laneratzean paper garrantzitsua jokatuz.
- Eskualdeko Lanbide Heziketako zentroak bere eskaintza zabaltzen du ikasle kopuru handiagoa berreskuratzeko.
- Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Zentroa (HHI), etengabe ari da bere eskaintza berritzen eta bere ikasleen profila ere aldatzen doa. Ikasle gehiago ditu eta instalazioak txiki geratu zaizkio bere jardura aurrera eraman ahal izateko.
- Arrasateko Goi Mailako Eskola Politeknikoak, Eskoriatzako Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak (HUHEZI) eta Oñatiko Enpresa Zientzien Fakultateak (ETEO), Mondragón Unibertsitatea sortu zuten 1997 urtean.
- Hezkuntza mailaren arabera eskaria eta eskaintza egokitzea udalerriri edota eskualde mailan.

EUSKARA

- 1981tik 2001era bitartean biztanleria elebidunaren pixkanakako gehikuntza.
- 1988tik 2007ra bitartean euskararen kaleko erabilaren oso eboluzio ona, azken urte hauetan moteldu egin den arren.
- 2 euskaltegi udalerrian.
- Etorkinak euskalduntzeko lan egiten da hainbat udal ekimenen bitartez.
 - Duela 5 urtetik hona, udalak euskara sendotzeko eskolak antolatzen ditu ume etorkinentzat.
- Harrera gida euskaraz eta beste hainbat hizkuntzatan Arrasate/Mondragón-en eta eskualdean ondo moldatzeko informazio garrantzitsua eskaintzeko.
- Ibilbide handiko hizkuntza politika.
- Euskara sailak diruz laguntzen dituen udal elkarteekin edo enprekin duen harreman estuaren bitartez eskaintzen dira zerbitzu gehienak.
- Txikienean euskara ikasteko materiala argitaratu da eskualdean (Debagoienako Mankomunitatearen eta udal euskaltegiaren arteko lankidetzak).
- "Euskararen transmisio programa", euskararen erabilera bultzatzeko guraso gazteei zuzendutakoa.

Eragin positiboak:

EUSKARA

- Euskarak presentzia handia du udal zerbitzuetan nahiz eta badiren oraindik erabat euskaldundu ez diren sailak.
- Euskarak presentzia handia du udalak bultzatutako jardueretan.
- Hizkuntza paisaiaren eboluzioa: kaleen izenak, trafikoko seinaleak, udal eraikinen errotuluak...

KULTURA

- Kultura ekipamenduen azpiegitura aberatsa eta berritua.
- Amaia Antzokia arte eszenikoen eskualdeko erreferentea da eta bere edukia indartu du azken urteotan.
- Kulturate, udal kultura azpiegituraren zatirik handienak, okupazio indize altuak izan ditu.

KIROLA

- Debagoieneko biztanleek kirol zerbitzuak erabiltzeko abonu mankomunatuak eskuratzeko aukera dute.
- Aurreko urteekin alderatuta, 2007 eta 2008 bitartean kirol jardueren eskaintza %40an igo da.

GAZTERIA

- Gazteen premietara doitutako udal zerbitzu eta ekipamenduak: web orria, gazte informaziorako bulegoa, sexologia zerbitzua, ludotekak, gaztetxokoak, gaztetxea, musika lokalak...
- Gazte elkarteak.

Eragin negatiboak:

HEZKUNTZA

- Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Zentroak (HHI), tamaina handiagoko instalazioak beharko lituzke bere jarduera aurrera eramanez ahal izateko.

EUSKARA

- Euskaltegiek azpiegitura arazoak dituzte.

KULTURA

- Udalak kultur elkarten eskura jartzen dituzten zenbait azpiegitura sakabanatuta eta gaizki kokatuta.
- Udal ekipamenduen erabiltzaileei buruzko ezagutzarik eza (adina, generoa, jatorria, nola izan duen jarduketaren berri...)
- Gazteei zuzendutako kultur eskaintza indartu eta egokitzeko premia.
- Kultur mailako asoziazionismoa geldotu egin da.

Eragin negatiboak:

KIROLA

- Nahiz eta udal kirol ekipamenduen kopurua altua den, beraien egoera ez da egokia (egitura urritasunak zenbait instalazioetan) eta eskaintza Musakolan zentralizatua dago.
- Ez da kirol ekipamenduen erabilera erreala ezagutzen.

GAZTERIA

- Erdigunean eta asteburuetan nerabeei eta gazteei zuzendutako jarduerak indartzeko premia.
- Gazteentzako eskaintza egonkorra duen lokala irekitzeko premia.

Aukerak:

- Eskolatzeko premiak aztertzeko, planifikatzeko eta konpontzeko, udala, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailarekin elkarlanean ari da Eskola Mapa egonkortzeko helburuarekin.
- Emakumearen profila sartu da Lanbide Hastapeneko hezkuntza eskaintzan.
- Bailarako kiroldegietan sarrera sistemak bateratzeko alternatibak aztertzen dabilta.
- Web orria <http://www.gaztebulegoa.com/>
- Eskualdeko informazioa jasotzen duen AIZUE aldizkari elektronikoa (ikastaroak, kultur agenda, enplegua....).
- Gazte elkarteak.

Premiak:

- Arrasate/Mondragón-eko Eskola Mapa egonkortzea.
- Lanbide Hastapeneko hezkuntza eskaintzan emakumearen profila sartzen jarraitzea (ikus Berdintasun Plana).
- Euskararen sustapenerako eta transmisiorako euskal eragileen lankidetzeta eta koordinazioa sustatzea udalerrian.
- Guraso gazteei zuzendutako "Euskararen transmisio programa" izenekoarekin jarraitzea euskararen erabilera bultzatzeko.
- "Gidabaimena" euskaraz programarekin jarraitzea.
- Etorkinak euskalduntzeko programekin jarraitzea.
- Kultur taldeak hartzen dituzten azpiegiturak hobetzea.
- Kultur eskaintza eta erabiltzaileak baloratzeko azterlana egitea.
 - Eudelek bultzatuta, Kulturateri buruzko azterlana egitea kultur eskaintzari buruzko politika publikoak ebaluatzeko.
- Gazteei zuzendutako kultur eskaintza indartzea eta egokitzea.

Premiak:

- Herritarrak kontzientziaztea kultur talde batean sartzekak dituen onurei buruz.
- Kirol azpiegiturak egokitzea.
- Kirol eskaintza deszentralizatzea.
- Erdigunean eta asteburuetan nerabeei eta gazteei zuzendutako jarduerak indartzea.
- Gazteentzako eskaintza egonkorra duen lokala irekitzea.

16. Etxebizitza

Eragin positiboak:

- Azken urteetan, hiri-garapenean eraikitako etxebizitzaren dentsitatea hazi egin da.
- La Caixa Fundazioaren Gizarte-ekintzaren alokairu araubidean dauden 148 etxebizitzaren sustapena Zerrajera eremuan.
- 2008 urte bukaera eta 2009 urte hasiera artean 375 babes ofizialeko etxebizitza daude amaituta edo amaitzeko.
- 2001ean, udalerriko familia etxebizitzaren %6ak bakarrik ditu 50 urte baino gehiago (Tolosan erregistratutako ehunekoa baina askoz baxuagoa (%23,35)).
- 2001ean, egoera kaxkarrean, txarrean edo akastunean dauden famili etxebizitzek %8,7a suposatzen dute, Zarautzeko ehunekoa baino baxuagoa (%10,76) eta Tolosarako lortutako baliotik oso urrun (%26,55).
- Suradesa erakunde urbanistikoak bideratutako etxebizitzaren birgaitze interbentzioak.

Eragin negatiboak:

- 2006an Arrasate/Mondragón-eko etxe huts kopurua %10,64 da.
- 2003 urtera arte etxebizitza berrien eskaintza baxua, ondorioz, hiri-garapena zuten inguruko udalerrietarako inmigrazioa eragin zen.
- Etxebizitza askearen edo bigarren etxebizitza nahiz alokairuko etxebizitzaren neurritz kanpoko prezioak.

Aukerak:


- Auzoko komunitateetan igogailuak instalatzeko lokalen desjabetzea errazten duen udal-ordenantzarik egon ez arren, azken urteetan, udaletxeak igogailuen instalazioa sustatzen ari da udal laguntzen bitartez.
- 2005etik, etxebizitzaren sustapenaren intentsitate handia, Arrasate/Mondragón-en eskaintzaren eta eskariaren artean zegoen desfasea zuzentzera bideratua.
- La Caixa Fundazioaren Gizarte-ekintzaren 148 etxebizitzaren sustapena alokairuko araubidean, Zerrajera eremuan.
- Hurrengo urteei begira 448 babes ofizialeko etxebizitza eraikitzea aurreikusten da.

Premiak:

- Jabetza eta alokairuko araubideen arteko konbinazio egokia bultzatzea.
- Etxebizitzaren tipologia, familia berrien egiturari egokitzea.
- Etxebizitza hutsaren alokairua bultzatzea.
- Etxebizitzaren birgaitze eta berritze politikarekin jarraitzea.

EKINTZA PLANAREN ELABORAZIOA

Hurrengo diagraman **Ekintza Plana** formulatzeko jarraitu den **plangintza operatiboa** azaltzen da:



Ekintza Planaren hasierako zirriborroa hurrengo dokumentazio iturrietatik etorritako informazioan oinarrituta egin zen:

- Arrasate/Mondragón-eko **2003-2007ko Tokiko Ekintza Planaren** exekuzio mailaren ebaluazioaren arabera, 2008ko abenduan **abiarazteke, martxan jarriak, aurreratuak eta amaitzeaz** dauden ekintza edo aktuzioak, edota amaitutak sailkatutako ekintza eta aktuzio **jarraituak**.
- **Arrasate Iraunkorra** Ekintza planetik berreskuratutako ekintzak.
- **Diagnostikoaren** ondorioz detektatutako **aukerak**.
- **Diagnostikoaren** ondorioz detektatutako **premiak**.
- Udal mailako eta udalaz gaineko **bestelako planak**.
- **Lehentasunezko jarduketa-eremuak**.

Informazio honen arabera eta Arrasate Iraunkorra planean deskribatutako “xede egoeren” erreferentziazko gertakizunen arabera formulatu zen Ekintza planaren **ikuspegia**.

Ikuspegia

Hemendik urte batzuetara (8-12 bitartean gutxi gora behera) nahi den udalerrriaren erreferentzi markoa osatuko duten ideiak orokorren aldarrikapen laburbildua.

Ikuspegitik abiatuta **Ekintza Planaren eskema** zabaltzen da.

LERRO ESTRATEGIKOAK (LE): helburu estrategikoak

PROGRAMAK: helburu operatiboak

Ekintzak: helburu operatibotik eratorritako eta burutu beharreko tresnak, zereginak eta proiektu zehatzak.

Aktuazioak: Ekintzak osatzen dituzten atalak edo maila baxuagoko ekintzak.

Paraleloki, klima aldaketaren aurkako borrokan laguntzen duten **ekintzak bereiztu** dira Ekintza Planetik, etorkizunari begira ***Klima Aldaketaren Aurkako Udal Estrategia*** elaboratzeko lagungarriak izango dira.

Honez gain, **detektatutako premiei buruzko hausnarketa ekintzak** identifikatu dira, oraindik, ekintza planean era zehatzean txertatzeko moduan egokiro definitu ez direnak. Proposatutako hausnarketa fasearen ondoren, detektatutako premia horiei **erantzuna** emango dieten **ekintza berriak** agertuko direla aurreikusi daiteke.

EKINTZEN KARAKTERIZAZIOA

Ekintzen karakterizazioa erreferentzi dokumentuan ezarritako puntu metodologikoetan oinarritzen da. Dokumentu horrek **gutxieneko karakterizaziotzat** hartzen du hurrengo **parametroen** deskribapena:

<i>Ekintzen gutxieneko karakterizazioa</i>	
Ekintzaren izena	Ekintzaren formulazioa.
Kodea	Hiru digituz osatutako kodea, lerro estrategikoari, programari eta ekintzari berari dagozkionak.
Arduradunak	Ekintzaren ezarpen edo exekuzioan inplikaturako entitateak. Eragile nagusia eta bigarren mailako eragileak bereizten dira.
Exekuzio epea	Ekintza burutzeko edo ezartzeko gehieneko epea. Laburra (1go eta 2. urteak), Ertaina (3. eta 4. urteak), edo Luzea (5.-8. urteak)
Lehentasuna	Ekintzaren lehentasun maila (Altua, Ertaina edo Baxua), ingurumenean, gizartean eta ekonomian duen eraginaren arabera.
Aurrekontua	Ekintza burutu edo ezartzeko aurreikusitako kostua.
Gaia	Ekintzei "Gaia" eta "Aalborgeko konpromisoak" esleitzeko, eskuragarri daude jarraibide
Aalborgeko konpromisoak	batzuk.

IKUSPEGIA

Jarraian, Arrasate/Mondragón-en ikuspegia aurkezten da bilatzen diren **helburu estrategikoen** arabera:

1. LE	Arrasate/Mondragón-ek askotariko ekonomia eta berdintasunezko lan merkatua du.
2. LE	Arrasate/Mondragón-eko gizartea pluralagoa, integratzaileagoa, kohesionatua, solidarioa eta berdintasunezkoa dela egiaztatzen da.
3. LE	Arrasate/Mondragón, hezkidetzan oinarritutako kulturagatik bereizten da, aberatsa eta sormen handikoa, gizartearen premia aldakorrei erantzuten dion eskaintza du.
4. LE	Arrasate/Mondragón-ek duen plangintza oinarritzen da; baliabideen gehienezko ustiapenean eta, lurzoruen eta balio naturalen, paisajistikoen, etnografikoen, arkeologikoen eta historikoen babesean eta errebalorizazioan.
5. LE	Motorrik gabeko garraio moduak dira erabilienak, eta nabarmen murriztu dira trafikoaren kongestio maila eta 2009an maiz jasaten ziren irisgarritasun arazoak.
6. LE	Deba eta Aramaiona ibaien uren kalitatean, ibilguetan eta ibaiertzetan hobekuntza egiaztatzen da. Baita ur kontsumoaren jaitiera eta aprobetxamenduaren igoera etxeetan, enpresetan eta administrazioan ere.
7. LE	Administrazio, industria, zerbitzu eta herri mailan, energia arrazionalizatzeko planak ezarri dira, eta energia iturri berriztagarrien ezarpen eta erabilpen maila garrantzitsuak lortu dira ingurumena kaltetu gabe.
8. LE	Arrasate/Mondragón-eko biztanleek hondakinen arazoaren inguruko kontzientzia handia dute, behar bezala hartzen dute parte hondakinak bereizten eta gehiengoarentzat, hondakinak murriztea eta berrerabiltzea lehentasuna da.
9. LE	Ibilgailu pribatuaren zentzuzko erabilerari esker efizientzia energetikoa hobetu da. Bestalde, Arrasate/Mondragón-eko enpresek aldaketa klimatikoaren aurkako borrokaren garrantzia onartu dute udalerriko airearen kalitatea eta biztanleen osasuna nabarmen hobetuz. Gaueko zaratak lehen baina arazo gutxiago sortzen ditu eta egunean zehar kaleetan dagoen zarata zerbait murriztu da motordun ibilgailuen zirkulazioa herriaren kanpoaldera bideratu delako. 2009 urtearekin alderatuta Arrasate/Mondragón-eko ekonomiak ingurumenarekiko duen jarrera hobetu egin da.
10. LE	Asko aurreratu da erosketa eta kontratazio publikoan irizpide iraunkorrak ezartzeko garaian, horrela izanik, udaletxeak paper garrantzitsua du eredu gisa biztanleriaren aurrean. Ikus daitezke jada kontsumo iraunkorra bilatzen duten ekimen publiko eta pribatuak.
11. LE	Arrasate/Mondragón-eko biztanleak aktiboki parte-hartzen dute udaleko erabaki-hartze prozesuak errazteko, eta biztanleria informatzen, sentsibilizatzen eta kontzientziazten egindako lanari esker, nabaria da gizartean iraunkortasunarekiko ardura maila altua dela.

2009-2016 TOKIKO EKINTZA PLANA

Jarraian, Arrasate/Mondragón-eko 2009-2016 Tokiko Ekintza Plana osatzen duten **lerro estrategikoak, programak, eta ekintzak eta aktuzioak** jasotzen dituen taula erakusten da.

Ekintzez gain, atxikitako taulan **ekintza bakoitzaren** eta **Aalborg+10** iraunkortasunerako **konpromisoen** arteko **elkarlotura** adierazten da:

1. **Gobernu-era:** Erabaki-hartze prozesuak bultzatzea demokrazia parte-hartzailearen bidez.
2. **Iraunkortasunera bideratutako Ingurumen kudeaketa:** kudeaketa programa eraginkorrak sortzea, diseinua hasten denetik ebaluaziora iritsi arte, ezarpen fasea ahaztu gabe.
3. **Baliabide natural komunak:** baliabide naturalak babestea, zaintzea eta hauetara ekitatiboki iristeko aukera bermatzea.
4. **Kontsumo eta bizimodu arduratsuak:** baliabideen erabilera arduratsu eta eraginkorra onartzea eta erraztea, eta kontsumo eta produkzio iraunkorra sustatzea.
5. **Hirigintzako plangintza eta diseinua:** hirigintzako diseinu eta plangintzan paper estrategikoa onartzea, eta ingurumen gaiak, gizartekoak, ekonomikoak, osasunekoak eta kulturalak guztion onura lortzera bideratzea.
6. **Mugikortasuna hobetzea eta trafikoa murriztea:** garraioa, osasuna eta ingurumenaren arteko elkarmenpekotasuna onartzea eta iraunkorrak diren mugikortasun erak sustatzeko konpromisoa hartzea.
7. **Osasunaren aldeko tokian tokiko ekintza:** herritarren osasuna eta ongizatea babestea eta suspertzea.
8. **Tokian tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra:** Ingurumena kaltetu gabe lana sustatzen duen tokiko ekonomia bizia sortzea eta bermatzea.
9. **Berdintasuna eta justizia soziala:** komunitate integratzaileak eta solidarioak bermatzea.
10. **Tokian tokitik esparru globalera:** bakea, justizia, berdintasuna, garapen iraunkorra eta klimaren babeserako ardura geureganatzea.

Eta bestalde, **Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia** batean **barneragarriak** diren **ekintzak** identifikatzen dira, **3 kategoria** bereiziz:

- **A: Oso barneragarriak**
- **B: Partzialki barneragarriak**
- **C: Ez oso barneragarriak**

Aalborg + 10 Konpromisoa											KAB ²
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10		
1. LE. EKONOMIA ANITZA ETA IRAUNKORRA ETA BAITA ENPLEGUA ERE SUSTATU											
1.1. LANEAN TXERTATZEAREN ETA LANBIDE PRESTAKUNTZAREN SUSTAPENA											
1.1.1. Lanerako prestakuntza jarraitua eta birziklatze profesionala bultzatu, batez ere prestakuntza maila txikieneko taldeei zuzendua. a. Emakume, etorkin, eta enplegurik gabeko pertsonei zuzenduriko lanerako prestakuntza ikastaroak eman udaletxetik egoera txarrean dauden sektoreei zuzenduak. b. Enplegu eta Ekonomi Garapeneko proiektu mankomunatueta parte hartzea.										C	
1.1.2. Enplegurako orientazio eta bitartekaritza zerbitzu bat eskaini herritarrei oro har zuzendurikoa. a. Lanbide eta INEMekin elkarlanean jardun.										C	
1.1.3. Lan txertaketarako enpresa baten sorkuntza bideragarria ote den aztertu, AUZOLAN-corte verde proiektuaren balorazioa eginez.										C	
1.2. EKONOMI GARAPENAREN SUSTAPENA ETA EGOERA TXARREAN DAUDEN SEKTOREEN BERRESKURAPENA											
1.2.1. Udalerrian ezartzen diren enpresa ekimen berriak lagundu.										C	
1.2.2. Enplegua sustatu. a. Beste entitate batzuekin elkarlanean aritu autoenpleguaren sustapeneko programetan (SAIOLAN, Garapen Agentzia,...).										C	
1.2.3. Egoera txarrean dauden ekonomi sektoreak sustatu. a. Ibai-Arterekin elkarlanean aritu komertzioaren laguntzarako programak garatzeko. b. Nekazaritza eta abelazkuntzako sektorea sustatzeko programak garatu.										C	
1.2.4. Konponbideak bilatu udal merkatua biziberritzeko eta hiri jarduera komertzialaren elementu garrantzitsu bihurtzeko helburuz, eta beronen birmoldaketarako proposamenak planteatu.										C	

² KAB: Klima Aldaketaren aurkako borroka

Aalborg + 10 Konpromisoa											KAB
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10		
1.2. EKONOMI GARAPENAREN SUSTAPENA ETA EGOERA TXARREAN DAUDEN SEKTOREEN BERRESKURAPENA											
1.2.5. Udalerria zeharkatzen duten PR ibilbideen balioa agerian ipini behin berreskuratu eta gaitu ondoren. a. PR Erromes Bide ibilbidearen balioa agerian ipini Aretxabaleta eta Oñatiko udaletxeekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. b. PR Udala-Besaide-Udala ibilbidearen balioa agerian ipini. c. PR Erregebide-Bedoña ibilbidearen balioa agerian ipini. d. Arretxena baserria berreskuratu eta bere balioa agerian ipini.											C
1.2.6. Vitoria-Gasteiz hirugarren sektorean sortarazten duen gastu ihesari aurre egiteko alternatiba posibleen inguruan hausnarketa eta eztabaida egiteko guneak sortu.											C
LE2. ONGIZATEA HOBETZEA ETA GIZARTERATZEA LAGUNTZEA, BERDINTASUN BALIOAK EZARTZEA ETA HERRITARREN ARTEAN OHITURA ETA BIZIMODU OSASUNGARRIAK SUSTATZEA											
2.1. OINARRIZKO EKIPAMENDU OROKORRAK HORNITZEA ETA HERRITARREN ARRETA-ZERBITZUA HOBETZEA											
2.1.1. Udaleko kirol azpiegituren kalitatea hobetzea. a. Iturripeko kiroldegia hobetzea. b. Musakolako kiroldegia hobetzea. c. Musakolako igerilekua hobetzea.											C
2.1.2. AUKEArentzat web orri interaktibo bat sortzea.											C
2.1.3. AUKEAko langileentzat lan-egokitzapen ikastaroak antolatzea.											C

	Aalborg + 10 Konpromisoa										KAB
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
2.2. PERTSONA ZAHARREN ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA HOBETZEA											
2.2.1. Elkarbizitza programak edo zerbitzuak eskaintzea eskatzailearen etxean bertan burututako laguntza jardueren bidez. a. Elkarbizitzako formula alternatiboak.											C
2.2.2. Pertsona zaharrentzako ordezkio alojamendu zerbitzuak eta baliabide multzoa kudeatzea. b. Tutoretzapeko pisu izatera bideratutako BOE etxebizitzaren erreserba handitzea. c. Egunekeko Zentro Psikogeriatrikoa. d. Pertsona zaharrentzako egoitza eraberritzea.											C
2.2.3. Arrasate/Mondragón-en dauden lau Jubilatutako Elkarteei batera lan egitea zahar-etxeak mantentzeko eta prebentzio, kultura eta aisialdi jarduerak sustatzeko. (Gizarte-Elkarbizitzaren Programa)											C
2.2.4. Pertsona zaharrak laguntzeko boluntario lanak bultzatu eta laguntzea. a. Boluntarioei zuzendutako formazioa. b. Boluntario taldeak sustatzea (Nagusilan...).											C
2.3. GAZTERIAREN EKIMENAK BULTZATZEA											
2.3.1. Nerabe eta gazteei zuzendutako jarduerak indartzea erdigunean eta asteburuetan.											C
2.3.2. Gazteentzat topagune izango den eta eskaintza egonkorra izango duen lokal bat irekitzea.											C
2.4. KOLEKTIBO BEHARTSUAK LAGUNTZEA ETA GIZARTERATZEA											
2.4.1. Laguntza ekonomikoaren norberaren fondoa mantentzea "Diru Sarrerak Bermatzeko Legea" kontutan hartu ez diren egoerei aurre egiteko											C
2.4.2. Inmigratioari buruzko Tokiko Plana irizpide iraunkorrekin elaboratu eta ezartzea. a. Inmigratioari buruzko Tokiko Plana taxutzea. b. Inmigratioari buruzko Tokiko Plana ezartzea.											C
2.4.3. Kaleko Heziketa proiektuekin jarraitzea.											C

	Aalborg + 10 Konpromisoa										KAB
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
2.5. GARAPENERAKO LANKIDETZA SUSTATZEA											
2.5.1. Herri behartsuenetako biztanleriaren beharrak asetzera zuzendutako proiektuak bermatzea.											C
a. Garapenerako Lankidetzarako laguntzak suspertzea (Euskal Fondoaren proiektuen ekarpena barne).											
2.6. BERDINTASUN BALOREAK GARATZEA ETA LAN- ETA FAMILIA-BIZITZAREN BERDINKATZEA BULTZATZEA											
2.6.1. Gizartean, genero berdintasunaren inguruan sentsibilizazioa sustatzea udaletik antolatutako kanpainen bidez edo udaletik beste erakundeek antolatutako kanpainei bultzada emanez.											C
a. Emakumeen Txokoa liburutegia.											
b. Genero indarkeriaren aurkako elkartean parte-hartzea.											
c. Emakumeen eskubideen inguruko legezko aholkularitza zerbitzua.											
d. "Genero indarkeriaren aurkako planaren" ekintzak ezartzen joatea.											
2.6.2. Emakumeen botere-hartzea lortzera eta partehartze soziopolitiko bultzatzera zuzendutako ikastaroak ematea.											C
2.6.3. 2004-2008 Bigarren Berdintasun Plana baloratzea eta 2010-2014 Hirugarren Berdintasun Plana elaboratzea.											C
a. 2004-2008 Bigarren Berdintasun Planaren balorazioa.											
b. 2010-2014 Hirugarren Berdintasun Planaren elaborazioa eta ezarpena.											
2.6.4. Lan- eta familia-bizitzaren bateratzea sustatzea udaletxearen ekintzak eredutzat hartuz											C
a. Legeak ezarritakoaren gainetik laneko ordutegiak murriztea edota malgutzea.											
b. Gizonei sentikortze kanpainak zuzendu erantzukidetasunean inplika daitezela bilatuz.											
c. Lanpostuan ez egon beharra ahalbidetzen duten lan sistemak sustatu											
2.6.5. Berdintasun irizpideen ezarpena eta jarraipena arautuko dituen protokoloa ezartzea Tokiko Ekintza Planean.											C

						Aalborg + 10 Konpromisoa						KAB				
						1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
2.7. OHITURA OSASUNTSUAK SUSTATZEA																
2.7.1. Droga-menpekotasuna Aurreikusteko Plan Berria egitea eta ezartzea.																C
a. Droga-menpekotasuna Aurreikusteko Plan berria egitea																
b. Droga-menpekotasuna Aurreikusteko Plan berria ezartzea																
2.7.2. Herritarren artean ohitura osasuntsuak zabaltzea.																C
a. Eskualdeko Gertutik aldizkariko edukien elaborazioan laguntzea.																
2.7.3. Iturripeko kiroldegiaren eskaintza zabaltzeko aukerak aztertzea.																C
2.7.4. Musakolako kiroldegia eta Gorostiza (Malvinas) auzoaren arteko oinezkoentzako bidean pertsona zaharrentzat gimnasia aparatuz hornitutako ibilbide "bio-osasuntsu" bat egokitzea.																C
2.8. ETXEBIZITZA ESKURATZEKO ERRAZTASUNAK																
2.8.1. Alokairu araubidean dauden BOE etxebizitzak eraikitzeke ekimenak sustatzea.																C
2.8.2. Etxebizitza hutsak merkaturatzea (VIVESaren etxebizitza hutsen alokairurako BIZIGUNE programarekin batera lan egitea).																C
a. Jabe espedientearen tramitazioa.																
b. Esleipendun espedientearen tramitazioa.																
c. Urtero %50eko zerga hobaria aplikatu OHZ-ri BIZIGUNE programako etxebizitzetara.																
d. Urtero %50eko zerga hobaria aplikatu Obra-zergari urtero BIZIGUNE programako etxebizitzetara.																
LE3. HEZKUNTZA SISTEMA HOBETZEA, KULTURA SUSTATU ETA INDARTZEA ETA EUSKARAREN NORMALIZAZIOA BERMATZEA.																
3.1. HEZKUNTZAN IRAUNKORTASUNA SUSTATZEA																
3.1.1. Hezkuntza-dotazioak eskolaratze beharretara egokitzea.																C
a. San Antolin (Musakolako) esparruan haurtzaindegi zerbitzu bat martxan jartzea (0-2 urte).																
3.1.2. Hezkuntzako Ohiko Udal Kontseilu berria definitzea eta martxan jartzea.																C

Aalborg + 10 Konpromisoa											KAB
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10		
3.1. HEZKUNTZAN IRAUNKORTASUNA SUSTATZEA											
3.1.3. Eskolako komunitatean hezkidetzaren sustatzea. a. Berdintasuneko teknikariekin batera hezkidetzaren mahaia antolatzea. b. Hezkuntza eremuan Genero Indarkeriaren Aurkako Plana gauzatzea. c. Hezkidetzaren proiektua burutzea.											C
3.1.4. Udalerria informazioaren gizartean barneratzea. a. Teknologia informatiko berriak ikasteko oinarritzeko ikastaroak antolatzea bereziki helduei eta prestakuntza maila baxuagoko taldeei zuzenduak. b. Hezkuntza sisteman informazio teknologia berrien ezarpena bultzatzea.											A
3.2. KULTURA ETA AISIALDI ESKAINTZA ERAKARGARRIA SORTZEA ETA ELKARTEGINTZA SUSTATZEA											
